

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

5781

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 5ekoa, Segurtasuneko sailburuordearena eta Segurtasun Sail-eko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez onetsi eta argitaratzen baitira Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agentearen eta agente lehenaren kategorietako zein ikuskapen eskalako ofizialordearen eta ofizialaren kategorietako zenbait lanpostu –izendapen askearen (C247) eta berariazko merezimendu lehiaketaren (C248 eta C249) sistemen bidez hornitu beharrekoak– betetzeko lehiaketa eta lanpostuen aldi baterako esleipena egiteko prozedura.

Ertzaintzaren egitura eta gaur egun indarrean dauden lanpostuen zerrenda ikusita, eta dauden langile-beharrak kontuan hartuta, izendapen askearen eta berariazko merezimendu lehiaketaren sistemen bidez bete beharreko lanpostuak betetzeko deialdia egiten da, izan ere, Ertzaintzaren egituran hutsik dauden lanpostuak dira eta aurrekontu-zuzkidura dute.

Prozesu hau amaitzean lanpostuen zerrendan definitutako langile-beharrak erabat erantzunda gera daitezke, baldin eta deitutako lanpostu guztiak behin betiko betetzen ez badira, horien baldintzak betetzen dituen langilerik ez dagoelako edo okupatzailerik gabe geratzen direlako, hautaketa-prozedura hau lanpostu edo/eta dotazio hutsak aldi baterako esleitzeko prozedurarekin osatzen da. Hautaketa hori lanpostuak behin betiko betetzeko erabiltzen diren berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-irizpide berberetan oinarrituta egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 105. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudia onartzen duen abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuaren 25. eta 26. artikuluen esparruan.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2022ko abenduaren 1eko Ebazpenaren bidez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikulua babesean, erabaki da gaur deitzen den prozedura barruko Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak aldi baterako esleitzeko eskumena goragokoak bereganatzea, nahiz eta prozedura hori ohiko izaeraz Giza Baliabideen Zuzendaritzak esleituta izan Segurtasun Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko Dekretuaren 12.2.b) artikuluan oinarriturik.

Segurtasun Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 14. eta 9. artikuluek Segurtasuneko sailburuordeari eta Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hurrenez hurren, ematen dizkieten eskumenez baliatuta, eta 2022ko abenduaren 1eko Ebazpenaren bidez goragokoak eskumenak bereganatzeari buruzko Ebazpena betearaziz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 125. artikuluan aurreikusitako Mahaiak 2022ko azaroaren 29an egindako bileran negoziatzeko deialdia egin ondoren, honako hau

EBAZTEN DUGU:

Lehenengoa.– Onestea eta argitaratzea Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako Ertzaintzaren egiturako zenbait lanpostu –izendapen askearen (C247) eta berariazko merezimendu lehiaketaren (C248 eta C249) sistemen bidez hornitu beharrekoak– behin betiko betetzeko

lehiaketa eta behin betiko esleipenaren ondoren hutsik geratzen diren lanpostuen aldi baterako esleipena egiteko prozedura, 1. eranskinean jasotako oinarrien arabera.

Bigarrena.– 1.– Deialdi honen bidez beteko diren lanpostuak honako hauek dira:

a) Ertzaintzaren egiturako zenbait lanpostu, izendapen askearen sistemaren bidez hornitu beharrekoak, honen 2. eranskinean zerrendatuta daudenak (C247).

b) Ertzaintzaren egiturako zenbait lanpostu, berriazko merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez hornitu beharrekoak, Babes eta Segurtasun, Esku-hartze, Lehergailuak Indargabetzeko, Brigada Mugikorraren eta Zaintza eta Erreskate Unitateetan, honen 3. eranskinean zerrendatuta daudenak (C248).

c) Bigarren jarduerako administrazio-egoeran hornitu daitezkeen Ertzaintzaren egiturako lanpostuak, berriazko merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez hornitu beharrekoak, gainerako unitateetan, honen 4. eranskinean zerrendatuta daudenak (C249).

d) Ertzaintzaren egiturako lanpostuak, berriazko merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez hornitu beharrekoak, gainerako unitateetan, honen 5. eranskinean zerrendatuta daudenak (C249).

2.– Deialdi honen xede izango dira, halaber, aurreko eranskinetan zerrendatutako lanpostuei dagozkien esleipenen ondorioz hutsik geratzen diren lanpostuak eta esleipen-proposamena egin arte sortzen direnak, bai eta aipatutako eranskinetan izartxoarekin (*) identifikatzen diren kodeetan hutsik geratzen direnak ere.

3.– Behin betiko hornitu beharreko zuzkiduren kopurua, aurreko 1 eta 2 zenbakietan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, 2., 3., 4. eta 5. eranskinetan adierazitakoa da.

4.– Behin betiko betetzen ez diren lanpostu hutsek edo okupatzailerik gabe geratzen diren zuzkidurek zehaztuko dute eman beharreko aldi baterako esleipenen kopurua, dagokion Atal edo Unitateko zuzkiduren kopurua osatu arte, lanpostuen zerrendan aurreikusitakoa, hain zuzen.

5.– Bigarren jarduerako administrazio egoeran hornitu daitezkeen lanpostuetatik betetzen ez direnek 5. eranskinean deitutakoen kopurua handituko dute neurri berean.

Hirugarrena.– 1.– Prozedura honetan ematen diren egintza eta xedapen guztiak Gurenet atarian argitaratuko dira, hurrengo atalean eta deialdiaren oinarrietan ezarritakoari kalterik egin gabe.

2.– Segurtasuneko sailburuordearen eta Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen baterako ebazpenaren bidez, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuko da, behin betiko atxikipenak ebazten dituen ebazpena Gurenet atarian noiz jarri den jakitera emateko. Iragarki hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den egunak zehaztuko du zein izango den balizko aurkaratzeak edo errekursoak jartzeko epeak zenbatzen hasteko eguna.

3.– Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenaren bidez aldi baterako esleipenak argitaratuko dira Gurenet atarian eta argitaratze-egunak zehaztuko du zein izango den balizko aurkaratzeak edo errekursoak jartzeko epea zenbatzen hasteko eguna.

Laugarrena.– 1.– Hautapen-prozedura honetako izangaiak zenbaki profesionalaren bidez identifikatuko dira.

2.– Datu pertsonalen tratamenduek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte: datu pertsonalen babesari buruzko egungo araudia; 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen

dituena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

3.– Ezarritako segurtasun-neurriak bat datoz Administrazio Elektronikoen esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuak onartutako II. eranskinean (Segurtasun-neurriak) aurreikusitakoekin.

Bosgarrena.– Aurreikusi ez den guztirako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko da.

Seigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraz, horren aurka eta eranskinen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa jarri ahalko diote Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 5a.

Segurtasuneko sailburuordea,
RODRIGO GARTZIA AZURMENDI.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MIREN GOITIA GABIOLA.

1. ERANSKINA

OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Honako deialdian parte hartu ahal izango dute eskainitako lanpostuak bete ahal izateko lanpostuen zerrendan eskatzen eta xedatzen diren baldintza orokorrak (eta, hala badagokio, dagokion eranskinean) eta betekizunak betetzen dituzten Ertzaintzaren karrerako funtzionarioek, baldin eta jarduneko zerbitzuan, zerbitzu berezietan, seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentzian, genero-indarkeriagatiko eszedentzian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Legearen testu bateginaren 86. artikuluan jasotako eszedentzian badaude. Zerbitzu aktiboko egoerara aipatutako legearen 92. artikuluan jasotako moduan bueltatzen diren funtzionarioek ere parte hartu ahal izango dute.

2.– Halaber, jarduneko zerbitzura deialdi honetan jasotako prozeduren bidez bueltatuz gero, honakoek ere parte hartu ahal izango dute: derrigorrezko lan-utzialdiko egoeran dauden edo bestelako Administrazio Publikoetan zerbitzu ematen duten pertsonak, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Legearen testu bateginaren 84. artikuluan xedatutakoa betez birgaitutako pertsonak, sei hilabete baino gehiagoz zigortuta egon direnak, eta borondatezko lan-utzialdian dauden gainerakoek, betiere halako egoeretarako xedatutako egonaldi-epea bete baldin badute.

3.– Bigarren jarduerako administrazio egoeran dauden Ertzaintzako karrerako funtzionarioek ebazpen honen 4. eranskinean zerrendatutako lanpostuak soilik eskatu ahalko dituzte.

4.– Deialdi honetan parte hartu behar dute eta merezimenduen lehiaketaren bidez hornitzen diren lanpostu huts guztiak eskatu, dagokien kategoriaren arabera hornitu ahal badituzte, Ertzaintzako karrerako funtzionario hauek:

Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Legearen testu bateginaren 98. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntzari buruzko Araudia onartzen duen 315/1994 Dekretuaren 54.2 artikuluan xedatutako irizpide eta balditzen arabera, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak deitutako edo/eta emandako espezializazio-ikastaroa gainditu duten (eskainitako lanpostuak bete ahal izateko betekizunetako bat izanik), espezialitate horretan gutxieneko iraute denbora bete ez duten eta ikastaro hori espezialitate-betekizun moduan xedatuta duen lanpostu bati behin betiko atxikita ez dauden Ertzaintzako karrerako funtzionarioek deialdi honetan parte hartu beharko dute.

Betebehar hori betetzen ez dutenak behin betiko, eta derrigorrez, atxiki ahalko dira dagokion espezialitatearekin hutsik geratzen diren lanpostuei, eta ez dute inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango.

Funtzionarioen batek espezialitate bat baino gehiago badu, aurreko ataletan xedatutako betebeharra lortutako azken espezialitateari buruzkoa dela ulertuko da.

Gutxieneko iraute denboraren zenbaketa hasi egingo da funtzionarioak okupatuko duen lanpostuari exijitzen zaion espezialitatea egiaztatuta duen unetik aurrera, non eta Segurtasun sailburuaren 2015eko martxoaren 12ko Agindua, lanpostu-zerrenda aldatzen duena, indarrean jarri aurretik ez badu beteta.

Zenbaketa horretan sartuko dira unitate arteko kategorია goragoko eginkizunetan egindako epealdiak, nahiz eta lanpostu horiek espezialitate-betekizunik ez izan.

5.– Ezingo dute deialdi honetan parte hartu:

a) Arau-hauste larria edo oso larria egin izanagatik eginkizun-gabetze irmoaren administrazio egoeran daudenek, egoera horretan dauden bitartean.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoen Diziplina Araubidearen Arautegiaren 15. artikuluan xedatu bezala, lekualdaketaren bidez zigortu direnek.

c) Interes partikularragatiko borondatezko lan-utzialdian daudenek, baldin eta ez badute egoera horretan eman indarrean dagoen araudiak eskatutako gutxieneko denbora.

d) Gutxieneko iraute denbora berezia eskatzen duen lanpostu baten behin betiko esleipendunek, baldin eta ez badute epe hori bete (inguruabar hori lanpostuari uko egin eta organo eskudunak onartu izanaren ondoriozkoa denean izan ezik), bestearen iraute denbora eta izaera berberak dituen beste lanpostu batzuk lortzeko asmoa baldin badute, edo barne-igoera prozesu bidez lanpostua galtzea dakarren beste maila batera igo badira, kategoria berrian iraute denbora eta izaera berberak dituzten lanpostu hutsak daudenean izan ezik; azken kasu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako Funtzionarioen Lanpostuak Hornitzeari buruzko Araudiaren 5.3 artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da.

e) Deialdi honen aurreko bi urteetan merezimenduen lehiaketaren bidez destinoaz jabetu direnek.

Muga hori ez zaie ezarriko deialdi honen aurreko bi urteetan merezimenduen lehiaketaren bidez destinoaz jabetu direnen artean gaur egun behin-behinean atxikita dauden pertsoneri, salbu eta atxikipen modu hau lanpostuari uko egitetik (organo eskudunak onartuta) ondorioztatzen bada.

f) Babes eta Segurtasun, Esku-hartze, Brigada Mugikorraren eta Zaintza eta Erreskate Unitateetara sartzeko, beharrezkoa izango da aldeko txostena lortzea Giza Baliabideen Zuzendaritzako Prebentzio Zerbitzuak deialdi honetako eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko bi urteetan egindako osasun-azterketan, edo, bestela, azterketa hori gainditzea deialdi honetan.

Prozeduran onartua izan eta Prebentzio Zerbitzuaren aldeko txostena egiaztatuta ez duten langileei, ofizioz egiaztatuko denez, proba fisikoak egin aurretik egingo zaie zitazioa, deialdia egin duen organoaren ebazpen bidez.

Prebentzio Zerbitzuak kontrako txostena egiten badu edo edozein arrazoi dela medio mediku-azterketa egiteko hitzordura joaten ez bada, hautaketa-prozeduratik kanpo geratuko da edozein fase dela.

g) Eskuratu nahi duten lanpostuan gehieneko iraute-denbora bete dutenek, lanpostu-zerrendan ezarritakoaren arabera. Gehieneko iraute-denboraren betearazpena Segurtasuneko sailburuaren lanpostu zerrenda aldatzeari buruzko 2015eko martxoaren 12ko Aginduan eta harekin lotuta dagoen 2018ko urriaren 11ko Aginduan ezarritako aurreikuspenen arabera egingo da, baita hurrengo arau hauen arabera ere:

– Babes eta Segurtasun, Esku-hartze eta Brigada Mugikorraren Unitateetan lanpostuak bete nahi izatekotan, lanpostu bakoitzerako eta unitate horietako bakoitzerako gehieneko iraute denboraren zenbaketa hasi egingo da funtzionarioak okupatuko duen lanpostuari exijitutako espezialitatea egiaztatuta daukan unetik aurrera, atxikipen modua edozein dela ere, espezialitatea lortzeko presakuntza prozesuko praktikaldia salbu.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko, Babes eta Segurtasun, Esku-hartze eta Brigada Mugikorraren Unitateei atxikitako lanpostuak, gehieneko iraute denbora dutenak, betetzeko aukera denean, unitate bereko Agente, Agente Lehen eta Ofizialorde kategorietarako gordetako lanpostuetan egindako jarduna zenbatuko da, lanpostu bakoitzerako.

Egitura organikoan eta lanpostu-zerrendan egindako moldaketen ondorioz, lanpostuen identifikazio kodeak aldatu izan direla kontuan hartuta, lanpostu berberatzat hartuko dira haiak betetzeko kategoria eta espezialitate berberak eskatzen dituztenak, eta zenbatu egingo dira lehenengo lanpostu-zerrenda indarrean jarri zenetik aurrera, hau da, 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Zenbaketa horretan sartuko dira unitate arteko kategoria goragoko eginkizunetan egindako epealdiak, aipatutako unitateetako lanpostu horiek gehieneko iraute denbora ezarrita dutenean.

Brigada Mugikorraren kasuan, ez dira kontuan hartuko ondorio hauetarako Laguntza Atalean nahiz Indartze Brigadan eginkizunak gauzatzen edo lanpostuak betetzen egindako epealdiak.

– Zaintza eta Erreskate Unitatean lanpostu bat eskuratu nahi izatekotan, gehieneko iraute denboraren zenbaketa hasi egingo da lanpostu horietako batean atxikipena gauzatzen den egunean.

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Legearen testu bateginaren 104.2 artikuluan xedatutakoak lehentasunezko eskubidea aitortzen dien Ertzaintzaren karrerako funtzionarioek deialdi honetan eta behin bakarrik erabili ahal izango dute eskubide hori, udalerrri berebetean dauden kategoria berberako lanpostu hutsak kontuan harturik. Lehiaketako merezimenduen balorazioan lorturiko puntuaziorik handienak ezarriko du ertzainak zein hurrenkeratan baliatu ahal izango diren lehentasunezko eskubideaz.

7.– Eskainitako lanpostuak betetzeko behar diren espezialitate-ikastaroak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emanak edo baliozkotuak izan beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntzari buruzko Araudian xedatutakoaren arabera.

8.– Merezimenduak baloratzeko orduan eskaerak aurkezteko epearen amaiera-data hartuko da kontuan, eta horixe bera izango da eskatzen diren betekizunak betetzeko erreferentzia-epea.

9.– Deialdian parte hartzeko betekizunak betetzen diren ofizioz egiaztatuko da, baita merezimendu orokorrak ofizioz balioetsi ere, Segurtasun Sailak kudeatzen dituen langileen datu-baseetan ageri diren datuak aintzat hartuta.

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Hautaketa-prozeduran parte hartu nahi dutenek deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta 2023ko otsailaren 10era arte (egun hori barne) aurkeztu beharko dituzte eskabideak.

2.– Honako deialdian parte hartzeko eskaera 6. eranskinean jasota dagoen eskabide-eredu normalizatua erabilita egingo da, eta behin betiko hornikuntzaren erregimenean eskatutako lanpostuak zein diren zehaztu beharko dute bertan. Lanpostu bat baino gehiago eskatuz gero, horien lehentasun-hurrenkera zehaztu beharko dute.

3.– Eskabideak aurkezteko epea igarotakoan, egindako eskaerak lotesleak izango dira eskatzaileentzat.

Hirugarrena.– Berariazko merezimendu lehiaketaren balorazio faseak.

1.– Merezimendu lehiaketaren balorazioa bi fasetan egingo da: berariazko merezimenduen balorazioa eta merezimendu orokorren balorazioa.

2.– Lehenengo fasean, berariazko merezimenduak baloratuko dira. Onartuek dagokion baremoan zehaztutako gutxieneko puntuazioa lortu beharko dute prozeduran jarraitu ahal izateko, horrela ezartzen denean.

2.1.– Merezimendu espezifikokoak baloratzeko, proba bat edo batzuk egingo dira. Proba horiek 7-26 eranskinetan agertzen diren edukiei buruzkoak izango dira, eta, aldi berean, hainbat ariketaz osatu ahal izango dira; nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira, edo ez, eranskinen arabera. Proba bat egin beharko denean, gehienez 40 puntu lortu ahaliko dira, eta gutxienez 20 puntu eskuratu beharko dira, gainditzeko, hurrengo paragrafoan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

Izangaiek, edukiak deskribatzen edo azaltzen dituzten eranskinetan adierazten dira gainditu dituztela ulertzeko, lortu behar dituzten gehieneko eta gutxieneko puntuazioak.

Probak trebetasun fisiko eta/edo funtzionaletako eta/edo ezagutza teoriko-praktikoetako ariketak izango dira, lanpostuaren eduki funtzionalarekin zerikusia dutenak.

Proba bat egitea aurreikusten denean, gehienez 40 punturekin baloratuko da, eta gutxienez 20 puntu lortu beharko dira gaindituztat jotzeko, hurrengo paragrafoan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

Beste proba bat egitea aurreikusten den lanpostuetarako, gehienez ere 20 puntu emango dira, eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira proba gainditutzat jotzeko.

3. - 5. eranskinetan, proba funtzional espezifikoa berean ebaluatuko diren lanpostuak biltzen dira.

2.2.– Ezagutza-proben gaiak lantokietako Giza Baliabideen Zentroko Burutzari eskatu ahal izango zaizkio, hautaketa-prozeduran parte hartzeko eskabidea egin izana egiaztatu ondoren; interesdunek pendrive bat edo antzeko euskarri informatiko bat aurkeztu beharko dute.

2.3.– Proba espezifikoa egin behar diren egunean izangaia aldi baterako ezintasun-egoeran badago, proba horietara dagokion Osasun Zerbitzu Publikoak emandako baimen medikoarekin joan beharko da, eta baimen horrek ez du eraginik osasunaren errekupeazioan.

3.– Lehenengo fasea gainditu dutenek bakarrik parte hartu ahal izango dute bigarren fasean, eta horretan merezimendu orokorrak baloratuko dira.

Merezimendu orokorrak baloratzeko, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segur-tasuneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko Aginduan, Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agente eta agente lehen kategoriak, ikuskapen-eskalako ofizialorde eta ofizial kategoriak, eta betearazpen-eskalako komisariorde kategorietako lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko merezimendu-baremo erkide eta bateratua onartzen duenean, ezarritako merezimendu baremoa aplikatuko da.

4.– Hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data iraungita duten zuzkidurak betekizun hori egiaztatuta duten interesdunei esleituko zaizkie.

Laugarrena.– Lanpostuak behin betiko hornitzeko prozedurako esleipen faseak.

1.– Deialdi honen xede diren lanpostuen esleipena egiteko faseak bata bestearen atzetik joango dira eta preklusiboak izango dira. Hurrenkera hauxe izango da:

1.1.– Lehenik eta behin, bigarren jarduerako administrazio egoeran dauden langileek bete ditzaketen lanpostuak esleituko dira, eskainitako lanpostuak betetzeko behar den espezializazio-ikastaroa, hala badagokio, gainditu duten funtzionarioei dagozkien betebeharrak kontuan izanik. Lehenengo azpi-fasean parte hartuko dute soilik prozesua gainditu dutenek eta horietatik deialdiko onartuen eta baztertuen zerrenda onartzen duen ebazpenean lehentasunezko esleipen eskubidea aitortuta dutenek.

1.2.– Bigarrenik, izendapen askeko sistemaren bidez hornitu beharreko lanpostuak esleituko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako Funtzionarioen Lanpostuen Hornidurari buruzko Araudiaren 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, izendapena egiteko beharrezkoa izango da hornituko den lanpostua atxikita dagoen administrazio unitatearen edo organoaren titularrak txostena ematea aurretik. Txosten horretan onartuetatik bere ustez egokiena dena proposatuko du, edo bestela deialdia hutsik geratzea proposatuko du.

1.3.– Ondoren, deialdi honen xede den berariazko merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez hornitu beharreko lanpostuen esleipena egingo da. Esleipen hori egiteko faseak bata bestearen atzetik joango dira eta preklusiboak izango dira. Hurrenkera hauxe izango da:

1.3.1.– Lehenik eta behin, Babes eta Segurtasun, Esku-hartze, Lehergailuak Indargabetzeko, Brigada Mugikor eta Zaintza eta Erreskate Unitateetan, deialdi honen xede diren lanpostuak esleituko dira, eskainitako lanpostuak betetzeko behar den espezializazio-ikastaroa gainditu duten funtzionarioei dagozkien betebeharrak kontuan izanik. Lehenengo azpi-fasean parte hartuko dute soilik prozesua gainditu dutenek eta horietatik deialdiko onartuen eta baztertuen zerrenda onartzen duen ebazpenean lehentasunezko esleipen eskubidea aitortuta dutenek. Eta bigarren azpifasean prozesua gainditu duten gainerako hautagaiek parte hartuko dute.

Era berean, betekizun berberekin eta jada egindako esleipenen ondorioz hutsik geratzen diren lanpostuak esleituko dira.

1.3.2.– Bigarrenik, gainerako unitateetan, deialdi honen xede diren lanpostuak esleituko dira, eskainitako lanpostuak betetzeko behar den espezializazio-ikastaroa gainditu duten funtzionarioei dagozkien betebeharrak kontuan izanik. Lehenengo azpi-fasean parte hartuko dute soilik prozesua gainditu dutenek eta horietatik deialdiko onartuen eta baztertuen zerrenda onartzen duen ebazpenean lehentasunezko esleipen eskubidea aitortuta dutenak. Eta bigarren azpifasean prozesua gainditu duten gainerako hautagaiak parte hartuko dute.

Era berean, betekizun berberekin eta jada egindako esleipenen ondorioz hutsik geratzen diren lanpostuak esleituko dira.

2.– Fase batean esleitzen diren lanpostuak ez dira hurrengo faseetan hornituko. Hala, fase batean lanpostu baten esleipendun direnek ezin izango diote esleitutako lanpostuari uko egin, ezta deialdiko lanpostuen esleipen prozesuan jarraitu ere. Horregatik, ulertu beharko da, hurrengo faseetan lanposturen baten esleipendun suertatzen baldin badira, eskaerei uko egiten dietela.

3.– Hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data iraungita duten zuzkidurak betekizun hori egiaztatuta duten interesdunei esleituko zaizkie.

4.– Deialdi honetan lanpostu baten behin betiko esleipendun direnek beste ebazpen honen bidez deitutako prozesuan parte hartzeari uko egin dietela ulertuko da: Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2022ko abenduaren 23ko Ebazpena, Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako Oinarrizko Eskalako Agentearen eta Agente Lehenaren kategorietako zein Ikuskapen Eskalako Ofizialordearen eta Ofizialaren kategorietako lanpostuak, merezimendu lehiaketa orokorraren sistemaren bidez hornitu beharrekoak, betetzeari buruzkoa.

Bosgarrena.– Merezimendu lehiaketako balorazio batzordeak.

1.– Berriazko merezimendu lehiaketa baloratzeko, hainbat Balorazio Batzorde eratuko dira, eta batzorde horien osieran Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean Administrazioaren kide anitzeko organoei buruz eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legean ezarritakoa betekiko da, baita inpartzialtasun- eta espezialitate-printzipioak ere.

1.1.– Berriazko merezimenduen lehiaketa sistemaren bidez hornitu beharreko lanpostuen espezifikotasuna aintzat hartuta erabakiko diren balorazio batzordeei dagokie berriazko merezimenduak edo probak baloratzea. Balorazio batzordeei ondokoa dagokie:

a) Prozeduraren objektibotasunaren arduradun diren heinean, deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatu beharko dute.

b) Berriazko merezimenduak baloratzea edo, zeregin hori egoki deritzon pertsonaren esku uztea; horretarako hartuko dituzte Gurenet atarian argitaratuko diren behin-behineko akordio egokiak. Interesdunek bost (5) egun balioduneko epea izango dute horien aurkako inpugnazioak egiteko, eta batzordeak arduratuko dira inpugnazio horiez.

1.2.– Balorazio Batzorde Nagusiak prozedura honetako merezimendu orokorrak baloratzeko ardura izango du, eta honako hauek dagozkie:

a) Prozeduraren objektibotasunaren arduradun den heinean, deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatzea eta, hala dagokionean, araudian dauden hutsuneak osatzeko eta horiek aplikatzean azalerrak diren kontraesanak kentzeko behar diren akordioak hartzea.

b) Merezimendu orokorrak baloratzea edo zeregin hori egoki deritzon pertsonaren esku uztea; horretarako hartuko dituzte Gurenet atarian argitaratuko diren behin-behineko akordioak; interesdunek bost (5) egun balioduneko epea izango dute horien aurkako inpugnazioak egiteko, eta batzordeak arduratuko dira inpugnazio horiez.

c) Puntuaziorik altuena lortu duten hautagaiak proposatzea eta, deitutako lanpostu kopurua eta hirugarren oinarrian xedatutakoaren arabera esleipen-proposamenen ondorioz hutsik gelditu diren lanpostuak aintzat hartuta, puntuaziorik altuena lortu duten hautagaiei lanpostuak esleitzeko proposamena Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari aurkeztea, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legean aurreikusitako lehentasun-eskubideei kalterik eragin gabe.

2.– Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenaren bidez, jakinaraziko da balorazio batzordeetako kideen eta horien ordezkoen izendapena. Euskal Autonomia Erkidegoko Agintaritzaren Aldizkarian jarritako iragarki baten bidez jakinaraziko da izendapen horiek noiz argitaratuko diren Gurenet atarian. Iragarki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den egunak mugatuko du zein izango den balizko inpugnazioak jartzeko epeak zenbatzen hasteko eguna.

3.– Balorazio Batzordeetako kideek ezingo dute esku hartu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean halako kasuetarako jasotako inguruabarrak ematen direnean; hori gertatzekotan organo eskudunari jakinarazi beharko zaio, eta hautagaiek errefusatu egin ditzakete.

4.– Balorazio batzordeen erabakiak bertaratuen botoen gehiengo bidez hartuko dira, eta berdinketarik egonez gero, batzordeburu lanak egiten dituenak ebatziko du; batzordeburu titularra edo horren ordezkoa bertaratu ezean, adinez nagusia den batzordekideak ordezkatu du.

5.– Balorazio batzordeak ezingo dira eratu, eta ezingo dute jardun, kideen erdia baino gehiago, idazkaria barne, bertaratzen ez bada; gainera, deialdia egin duen agintaritzari adituak eskatu ahal izango zaizkio aholkulari gisa, eta horiek ahotsa izango duten arren, ez dute botorik edukiko.

6.– Balorazio batzordeetan parte hartzeak lege aurreikusitako kalte-ordainak jasotzeko bidea emango du.

Seigarrena.– Lanpostuak behin betiko hornitzeko prozedurako izendapenak eta ebazpena.

1.– Izendapen askeko sistemaren bidez hornitu behar diren lanpostuak Segurtasun sailburuordearen ebazpenaren bidez esleitu dira. Ebazpena interesdunei banan-banan jakinaraziko zaie, eta prozedura honetarako ezarritakoaren arabera erakutsiko da jendaurrean.

Izendapen askeko sistemaren bidez hornitu beharreko lanpostu horiek esleitzen zaizkien funtzionarioak haietatik kendu ahal izango dira, eskatu ahala, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bateginaren 103.5 artikuluan ezarritako moduan. Esleipen horiek borondatezkat hartuko dira eta, beraz, ez dute sorraraziko kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik.

2.– Merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez hornitzen diren lanpostuak Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenaren bidez esleitu dira. Ebazpena prozedura honetan ezarritakoaren arabera argitaratuko da.

Lanpostu horien esleipendun gertatzen diren funtzionarioek ezin izango diete uko egin, eta ezin izango dute parte hartu azken behin betiko destinoa eskuratu zuen lehiaketa prozeduraren deialdiari buruzko ebazpenaren egunaren hurrengo bi urteetan deitzen diren lehiaketetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Legearen testu bateginaren 97.2 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako Funtzionarioen Lanpostuen Hornidurari buruzko Araudiaren 14.2 artikuluan ezarritako salbuespenarekin. Esleipen horiek borondatezkat joko dira, eta, ondorioz, ez dute eskubiderik sortuko ezin kontzepturengatik kalte-ordaina jasotzeko.

Lanpostua lehiaketa bidez lortzen duten funtzionarioak beren postuetatik kendu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bateginaren 103.4 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako Funtzionarioen Lanpostuen Hornidurari buruzko Araudiaren 15. artikuluan xedatutako legez.

3.– Unitate jakinetan dauden langile premiak kontuan harturik, erabaki ahalko da unitate horietan Ertzaintzaren gainerako unitate eta zerbitzuetan baino lehenago lanpostuak behin betiko betetzeko prozedura eraginkor bihurtzea eta gauzatzea.

Zazpigarrena.– Deialdia ebazteko epea.

Deialdi hau ebazteko epea sei hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoko egunetik aurrera zenbatuta. Halere, epe hori luzatu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Zortzigarrena.– Lanpostuaz jabetzea.

Deialdi honen bidez behin betiko hornitu beharreko lanpostuez jabetzeko prozesua deialdia erabakiko duen ebazpenak arautuko du eta ez du sorraraziko inolako baimenik edo lizentziarik.

Bederatzigarrena.– Lanpostuen aldi barerako esleipenak.

1.– Deialdi honen xede diren lanpostuen artean, hornikuntza sistema gisa berariazko merezimendu lehiaketa duten lanpostuen behin betiko hornikuntza ebatzi eta gero, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen baten bidez (Gurenet atarian argitaratuko dena) zehaztu egingo dira hornitu beharreko zuzkidura hutsak edo okupatzailerik gabekoak, harik eta dagokion atal edo unitateko ertzainen kopuru osoa bete arte, lanpostu-zerrendan aurreikusitakoaren arabera.

2.– Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen baten bidez (Gurenet atarian argitaratuko dena) lanpostuen aldi baterako esleipena gauzatuko zaie langile premiak erantzun behar diren unitatean behin betiko atxikipena lortu ez duten langileei, izapidetutako hautaketa prozedurako hurrenkera-ordenari jarraiki, baldin eta lanpostuak betetzeko prozeduran parte hartzerakoan unitate horretako lanpostu baterako parte hartu badute eta prozedura gainditu badute, eta baldin eta lanpostu-zerrendaren arabera jarduerak gauzatzeko exijitzen den titulazioa badute.

Goragoko kategorietako bateko hautagai kopuru nahikorik aukeratuko ez balitz, gehitu egingo da beheragoko kategorietan deitutako aldi baterako esleipenen kopurua, langile premiak erantzun behar diren unitatean behin betiko atxikipena lortu ez duten langileen artean, izapidetutako hautaketa prozedurako hurrenkera-ordenari jarraiki, baldin eta lanpostuak betetzeko prozeduran parte hartzerakoan unitate horretako lanpostu baterako parte hartu badute eta prozedura gainditu badute, eta baldin eta lanpostu-zerrendaren arabera jarduerak gauzatzeko exijitzen den titulazioa badute, harik eta, lanpostu-zerrendako aurreikuspenen arabera, dagokion atal edo unitatean dauden lanpostu hutsen kopuruarekin edo okupatzailerik gabeko zuzkidura kopuruarekin bat datorren ertzain kopuru osoa bete arte.

3.– Zerbitzu eginkizunen erregimenaren bidez gauzatuko da esleipena behin betiko atxikipenaz lanpostu bat dutenean eta, bestela, behin-behineko atxikipena egingo zaie.

4.– Esleipendunak bere kategoriako ordainsariak jasoko ditu, baita betetzen duen lanpostuari dagozkion osagarriak ere.

5.– Esleipen hauek borondatezkoak dira eta esleipenak ez du zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainik sortuko.

6.– Funtzionario esleipendunei behin betiko atxikita dauden lanpostua soilik gordeko zaie, hala badagokio.

7.– Esleipenak nahierara edozein unetan ezeztatu ahalko ditu eman dituen organoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Legearen testu bateginaren 105.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Edonola ere, esleipen hori eragin zuten zerbitzu premiak desagertzearen ondorioz edo gutxitzearen ondorioz ezeztatuko dira, hautaketa irizpideen ondoriozko ordenaren alderantzizkoan.

8.– Edozein arrazoi dela eta, aldi baterako esleipena uzten duten funtzionarioak behin betiko atxikipenaz okupatzen dituzten lanpostuei atxikiko zaizkie; atxikipen erregimen horretan lanposturik ez dutenak behin-behinean atxikiko zaizkie beste lanpostu batzuei, betiere lanpostu-zerrendan exijitutako betekizunak betetzen badituzte.

9.– Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenak, esleipenak onartzeari buruzkoak, esleipenen ondorioetarako data zehaztuko du, eta esleipenak ez du sorraraziko inolako baimenik edo lizentziarik.

2022ko abenduaren 30a, ostirala

2. ERANSKINA
IZENDAPEN ASKEAREN BIDEZ BETE BEHARREKO LANPOSTUAK

Kodea	Unitatea	Izendapena	Kategoria	Lang. kop.	Udalerria	Horn. sist.	HE	Especialitatea	Hornitu beharreko kop.	Iraungitako derrigortasun datarekin
10111	Bozeramaileta, Komunikazio eta Protokolo Zerbitzua	Prentsa Taldeko burua	Ikuskapen Eskala	1	Erandio	IA	2		1	1
10115	Bozeramaileta, Komunikazio eta Protokolo Zerbitzua	Protokoloa	Agentea	1	Erandio	IA	1	OIK11/IKI	*	
20045	Ekintzen Plangintzarako eta Azpiegituren Babeserako Burutza	Zibersegurtasuneko Euskal Zentroko bitartekoa	Ofizialondokoa	1	Erandio	IA	1		*	
20204	AKZ Nagusia	Bulego Teknikoa	Ofiziala	1	Erandio	IA	1		*	
20309	Arabako Lurralde Burutza	Idazkaritza Teknikoa	Ikuskapen Eskala	2	Vitoria-Gasteiz	IA	1		*	
20310	Arabako Lurralde Burutza	Ikerketako Idazkaritza Teknikoa	Ikuskapen Eskala	1	Vitoria-Gasteiz	IA	2	OIK12/IKI	*	
20318	Arabako Lurralde Burutza	Idazkaritza Teknikoa	Ofiziala	1	Vitoria-Gasteiz	IA	1		1	
20321	Arabako Lurralde Burutza	Idazkaritza Teknikoa	Oinarritzko Eskala	1	Vitoria-Gasteiz	IA	1		1	
20332	Arabako Inteligentziako Lurralde Bulegoa	Taldeburua	Ikuskapen Eskala	3	Vitoria-Gasteiz	IA	2	OIK12/IKI	1	1
20333	Arabako Inteligentziako Lurralde Bulegoa	Inteligentziako agentea	Oinarritzko Eskala	15	Vitoria-Gasteiz	IA	1	OIK11/IKI	6	4
20409	Bizkaiko Lurralde Burutza	Idazkaritza Teknikoa	Ikuskapen Eskala	2	Erandio	IA	1		*	
20410	Bizkaiko Lurralde Burutza	Ikerketako Idazkaritza Teknikoa	Ikuskapen Eskala	1	Erandio	IA	2	OIK12/IKI	*	
20414	Bizkaiko Lurralde Burutza	Idazkaritza Teknikoa	Ofiziala	1	Erandio	IA	1		1	
20415	Bizkaiko Lurralde Burutza	Idazkaritza Teknikoa	Oinarritzko Eskala	1	Erandio	IA	1		*	
20432	Bizkaiko Inteligentziako Lurralde Bulegoa	Taldeburua	Ikuskapen Eskala	6	Erandio	IA	2	OIK12/IKI	1	
20433	Bizkaiko Inteligentziako Lurralde Bulegoa	Inteligentziako agentea	Oinarritzko Eskala	27	Erandio	IA	1	OIK11/IKI	10	6
20509	Gipuzkoako Lurralde Burutza	Idazkaritza Teknikoa	Ikuskapen Eskala	2	Oiartzun	IA	1		2	2
20510	Gipuzkoako Lurralde Burutza	Ikerketako Idazkaritza Teknikoa	Ikuskapen Eskala	1	Oiartzun	IA	2	OIK12/IKI	1	
20514	Gipuzkoako Lurralde Burutza	Idazkaritza Teknikoa	Ofiziala	1	Oiartzun	IA	1		*	
20532	Gipuzkoako Inteligentziako Lurralde Bulegoa	Taldeburua	Ikuskapen Eskala	4	Oiartzun	IA	2	OIK12/IKI	1	1
20533	Gipuzkoako Inteligentziako Lurralde Bulegoa	Inteligentziako agentea	Oinarritzko Eskala	25	Oiartzun	IA	1	OIK11/IKI	11	7
30503	Polizia Zientifikoko Burutza	Ekintzen Arloko burua	Ikuskapen Eskala	1	Erandio	IA	2	OIK12/IKI	1	
30602	Joko eta Ikusizun Unitatea	Arloburua	Ofiziala	1	Bilbao	IA	1		*	
40507	Eraikinen Segurtasuneko Unitatea	Segurtasuna	Ofizialondokoa	2	Vitoria-Gasteiz	IA	1		1	1
60103	Barne Arazoetako Burutza	Arloburua	Ofiziala	2	Erandio	IA	2	OIK12/IKI	*	
70103	Kanpo Lankidetzako Burutza	Kanpo Lankidetzako Burutza	Ikuskapen Eskala	3	Erandio	IA	1		2	

2022ko abenduaren 30a, ostirala

Kodea	Unitatea	Izendapena	Kategoria	Lang. kop.	Udalerrria	Horn. sist.	HE	Especialitatea	Hornitu beharreko kop.	Iraungitako derrigortasun datarekin
70104	Kanpo Lankidetzako Burutza	Kanpo Lankidetzaz	Oinarrizko Eskala	2	Erandio	IA	1		*	
70105	Kanpo Lankidetzako Burutza	Bitartekoa	Ofiziala	3	Erandio	IA	1		1	
70202	Prestakuntza Koordinatuzko Zerbitzua	PLEAko Barnetegijako Arloko burua	Ofiziala	1	Vitoria-Gasteiz	IA	1		1	
80104	Intelligentzia Bulego Nagusiaren Burutza	Arloburua	Ofiziala	3	Erandio	IA	2	OIKI2/IKI	2	
80105	Intelligentzia Bulego Nagusiaren Burutza	Taldeburua	Ikuskapen Eskala	17	Erandio	IA	2	OIKI2/IKI	4	
80106	Intelligentzia Bulego Nagusiaren Burutza	Zerbitzuko agentea	Oinarrizko Eskala	138	Erandio	IA	1	OIKI1/IKI	37	20
80107	Intelligentzia Bulego Nagusiaren Burutza	Zerbitzuko agentea	Oinarrizko Eskala	14	Erandio	IA	1		5	4

2022ko abenduaren 30a, ostirala

3. ERANSKINA

BERARIAZKO ML-REN BIDEZ BETE BEHARREKO LANPOSTUAK ESKU-HARTZE, BRIGADA MUGIKOR,
ZAINZA ETA ERRESKATE ETA LEHERGAILUAK INDARGABETZEKO UNITATEETAN

Kodea	Unitatea	Izendapena	Kategoria	Lang. kop.	Udalerrria	Horn. sist.	HE	Especialitatea	Titulazioa / Berariazko betekizuna	Hornitu beharreko kop.	Iraungitako derrigortasun datarekin	Berariazko proba
40114	Brigada Mugikorraren Unitatea	BMko ofiziala	Ofiziala	8	lurreta	ML	1	Brigada mugik. IK. / Esku-hartze IK.		5		20.1
40115	Brigada Mugikorraren Unitatea	BMko ofizialondokoa	Ofizialondokoa	16	lurreta	ML	1	Brigada mugik. IK. / Esku-hartze IK.		2		20.2
40116	Brigada Mugikorraren Unitatea	BMko agente lehena	Agente lehena	62	lurreta	ML	1	Brigada mugik. IK. / Esku-hartze IK.		36	9	20.2
40117	Brigada Mugikorraren Unitatea	BMko agentea	Agentea	341	lurreta	ML	1	Brigada mugik. IK. / Esku-hartze IK.		83	12	20.2
40306	Lehergailuak Indargabetzeko Unitatea	Kalitate Prozesu eta Materialietako teknikaria	Oinarrizko Eskala	1	lurreta	ML	1			1		23
40703	Esku-hartze Unitatea	Esku-hartzea	Ofiziala	2	Berbedo	ML	1	Esku-hartze IK.		1		21.2
40704	Esku-hartze Unitatea	Esku-hartzea	Ofizialondokoa	2	Berbedo	ML	1	Esku-hartze IK.		1		21.1
40705	Esku-hartze Unitatea	Esku-hartzea	Oinarrizko Eskala	18	Berbedo	ML	1	Esku-hartze IK.		*		21.1
40803	Babes eta Segurtasun Unitatea	Eskolta	Ofiziala	3	Berbedo	ML	1	Eskolta-ik. / Esku-hartze IK.		*		24.1
40804	Babes eta Segurtasun Unitatea	Eskolta	Ofizialondokoa	6	Berbedo	ML	1	Eskolta-ik. / Esku-hartze IK.		2	1	24.2
40805	Babes eta Segurtasun Unitatea	Eskolta	Oinarrizko Eskala	124	Berbedo	ML	1	Eskolta-ik. / Esku-hartze IK.		31	4	24.2
40906	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Itsasertzeko patroia	Oinarrizko Eskala	6	lurreta	ML	1		102002	*		22.4
40909	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Uretako Zaintza eta Erreskate Taldeko burua	Ikuskapen Eskala	3	lurreta	ML	1		101001 eta 101003	2		22.1
40911	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Mendiko Zaintza eta Erreskate Taldeko burua	Ikuskapen Eskala	4	lurreta	ML	1		073004 edo 073006 edo 073008 edo 073005	*		22.9
40912	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Mendiko Zaintza eta Erreskate	Oinarrizko Eskala	45	lurreta	ML	1		073004 edo 073006 edo 073008 edo 073005	14	4	22.9
40920	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Operadorea	Oinarrizko Eskala	11	lurreta	ML	1		073004 edo 073006 edo 073008 edo 073005	5		22.6
40923	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Uretako Zaintza eta Erreskateko burua	Ofiziala	1	lurreta	ML	1		101001 eta 101003	1		22.3
40924	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Mendiko Zaintza eta Erreskateko burua	Ofiziala	1	lurreta	ML	1		073004 edo 073006 edo 073008 edo 073005	1		22.5
40925	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Operadoreen burua	Ofizialondokoa	1	lurreta	ML	1		073004 edo 073006 edo 073008 edo 073005	1		22.6

2022ko abenduaren 30a, ostirala

Kodea	Unitatea	Izendapena	Kategoria	Lang. kop.	Udalerrria	Horn. sist.	HE	Especialitatea	Titulazioa / Berriazko betekizuna	Hornitu beharreko kop.	Iraungitako derrigortasun datarekin	Berriazko proba
40926	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Uretako Zaintza eta Erreskatea	Oinarritzko Eskala	33	Iurreta	ML	1		101002 eta 101003 eta 102001 eta 102004 eta 103001	7	7	22.2
40928	Zaintza eta Erreskate Unitatea	UAS Logistikalako eta Ekinzetako burua	Oinarritzko Eskala	1	Iurreta	ML	1		100004 edo 100009 eta 100005 eta 100007	1		22.7
40929	Zaintza eta Erreskate Unitatea	UAS pilotua eta trebatzailea	Oinarritzko Eskala	5	Iurreta	ML	1		100004 edo 100009 eta 100005 edo 100008	5		22.8

2022ko abenduaren 30a, ostirala

4. ERANSKINA

BETE BEHARREKO BIGARREN JARDUERAKO LANPOSTUAK GAINERAKO UNITATEETAN

Kodea	Unitatea	Izendapena	Kategoria	Udalerrria	Lang. Kop.	Horn. Sist.	HE	Especialitatea	Hornitu beharreko kop.	Iraungitako derrigortasun datarekin	Berriazko proba
20546	Gipuzkoako Ikerketa Kriminalaleko Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminalaleko agentea	Agentea	55	Oiartzun	ML	1	OIK11/IKI	*		18.2
20547	Gipuzkoako Ikerketa Kriminalaleko Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminalaleko agentea	Agentea	10	Eibar	ML	1	OIK11/IKI	*		18.2
20803	Gipuzkoako Lurraldeko AKZ	Operadorea	Agentea	60	Oiartzun	ML	1		1		7.2
70309	Idazkaritza Nagusia	Agentea	Agentea	39	Erandio	ML	1		2		13

2022ko abenduaren 30a, ostirala

5. ERANSKINA

BERARIAZKO MEREZIMENDU LEHIAKETAREN BIDEZ BETE BEHARREKO LANPOSTUAK GAINERAKO UNITATEETAN

Kodea	Unitatea	Izendapena	Kategoria	Lang. kop.	Udalerrria	Horn. sist.	HE	Especialitatea	Titulazioa / Berriazko betekizuna	Hornitu beharreko kop.	Iraungitako derrigortasun datarekin	Berriazko proba
10112	Bozeramailetza, Komunikazio eta Protokolo Zerbitzua	Prentsakoko agentea	Oinarritzko Eskala	7	Erandio	ML	2			3	3	17
10113	Bozeramailetza, Komunikazio eta Protokolo Zerbitzua	Prentsakoko agentea	Oinarritzko Eskala	3	Vitoria-Gasteiz	ML	2			*		17
10114	Bozeramailetza, Komunikazio eta Protokolo Zerbitzua	Prentsakoko agentea	Oinarritzko Eskala	3	Oiartzun	ML	2			1	1	17
20043	Ekintzen Plangintzarako eta Azpiegituren Babeserako Burutza	Ofizialondokoa	Ofizialondokoa	1	Erandio	ML	1			*		16
20044	Ekintzen Plangintzarako eta Azpiegituren Babeserako Burutza	Agentea	Agentea	1	Erandio	ML	1			*		16
20203	AKZ Nagusia	Bulego Teknikoa	Oinarritzko Eskala	15	Erandio	ML	1			6	6	7.1
20215	AKZ Nagusia	Bizkaiko LAZLZko operadorea	Agente lehena	11	Bilbao	ML	1			6	6	7.4
20216	AKZ Nagusia	Bizkaiko LAZLZko operadorea	Agentea	41	Bilbao	ML	1			22	20	7.4
20219	AKZ Nagusia	Bizkaiko LAZLZko operadorea	Ofizialondokoa	5	Bilbao	ML	1			5	4	7.4
20304	Arabako Lurralde Burutza	Idazkaritza Teknikoa	Oinarritzko Eskala	6	Vitoria-Gasteiz	ML	1			2	1	12.1
20308	Arabako Lurralde Burutza	Ikerketako Idazkaritza Teknikoa	Oinarritzko Eskala	4	Vitoria-Gasteiz	ML	1	OIK1/IKI		1		12.2
20343	Arabako Ikerketa Kriminalako Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminalako lurraldeburua	Ofiziala	4	Vitoria-Gasteiz	ML	2	OIK12/IKI		1	1	18.1
20344	Arabako Ikerketa Kriminalako Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminalako agentea	Ofizialondokoa	4	Vitoria-Gasteiz	ML	1	OIK12/IKI		1		18.1
20345	Arabako Ikerketa Kriminalako Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminalako agentea	Agente lehena	6	Vitoria-Gasteiz	ML	1	OIK11/IKI		2	1	18.2
20346	Arabako Ikerketa Kriminalako Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminalako agentea	Agentea	43	Vitoria-Gasteiz	ML	1	OIK11/IKI		7		18.2
20404	Bizkaiko Lurralde Burutza	Idazkaritza Teknikoa	Oinarritzko Eskala	6	Erandio	ML	1			2	1	12.1
20411	Bizkaiko Lurralde Burutza	Ikerketako Idazkaritza Teknikoa	Oinarritzko Eskala	6	Erandio	ML	1	OIK11/IKI		1		12.2
20443	Bizkaiko Ikerketa Kriminalako Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminalako lurraldeburua	Ofiziala	4	Erandio	ML	2	OIK12/IKI		2		18.1

2022ko abenduaren 30a, ostirala

Kodea	Unitatea	Izendapena	Kategoria	Lang. kop.	Udalerrria	Horn. sist.	HE	Especialitatea	Titulazioa / Berriazko betekizuna	Hornitu beharreko kop.	Iraungitako derrigortasun datarekin	Berriazko proba
20444	Bizkaiko Ikerketa Kriminaleko Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminaleko agentea	Ofizialondokoa	4	Erandio	ML	1	OIK12/IKI		*		18.1
20445	Bizkaiko Ikerketa Kriminaleko Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminaleko agentea	Agente lehena	14	Erandio	ML	1	OIK11/IKI		2		18.2
20446	Bizkaiko Ikerketa Kriminaleko Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminaleko agentea	Agentea	87	Erandio	ML	1	OIK11/IKI		11	1	18.2
20504	Gipuzkoako Lurralde Burutza	Idazkaritza Teknikoa	Oinarritzko Eskala	7	Oiartzun	ML	1			2	2	12.1
20508	Gipuzkoako Lurralde Burutza	Ikerketako Idazkaritza Teknikoa	Oinarritzko Eskala	7	Oiartzun	ML	1	OIK11/IKI		2	1	12.2
20543	Gipuzkoako Ikerketa Kriminaleko Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminaleko lurraldeburua	Ofiziala	4	Oiartzun	ML	2	OIK12/IKI		1		18.1
20544	Gipuzkoako Ikerketa Kriminaleko Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminaleko agentea	Ofizialondokoa	4	Oiartzun	ML	1	OIK12/IKI		1		18.1
20545	Gipuzkoako Ikerketa Kriminaleko Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminaleko agentea	Agente lehena	9	Oiartzun	ML	1	OIK11/IKI		4	4	18.2
20546	Gipuzkoako Ikerketa Kriminaleko Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminaleko agentea	Agentea	55	Oiartzun	ML	1	OIK11/IKI		14	5	18.2
20547	Gipuzkoako Ikerketa Kriminaleko Lurralde Zerbitzua	Ikerketa Kriminaleko agentea	Agentea	10	Eibar	ML	1	OIK11/IKI		8	4	18.2
20602	Arabako Lurraldeko AKZ	Operadorea	Ofiziala	5	Vitoria-Gasteiz	ML	1			4	3	7.3
20603	Arabako Lurraldeko AKZ	Operadorea	Agente lehena	5	Vitoria-Gasteiz	ML	1			5	5	7.2
20604	Arabako Lurraldeko AKZ	Operadorea	Agentea	30	Vitoria-Gasteiz	ML	1			13	9	7.2
20605	Arabako Lurraldeko AKZ	Bulego Teknikoa	Oinarritzko Eskala	3	Vitoria-Gasteiz	ML	1			3	2	7.1
20701	Bizkaiko Lurraldeko AKZ	Operadorea	Ofiziala	5	Erandio	ML	1			3	2	7.3
20702	Bizkaiko Lurraldeko AKZ	Operadorea	Agente lehena	5	Erandio	ML	1			3	3	7.2
20703	Bizkaiko Lurraldeko AKZ	Operadorea	Agentea	90	Erandio	ML	1			22	18	7.2
20708	Bizkaiko Lurraldeko AKZ	Operadorea	Ofizialondokoa	5	Erandio	ML	1			3	2	7.3
20801	Gipuzkoako Lurraldeko AKZ	Operadorea	Ofiziala	5	Oiartzun	ML	1			3	2	7.3
20802	Gipuzkoako Lurraldeko AKZ	Operadorea	Agente lehena	5	Oiartzun	ML	1			3	3	7.2
20803	Gipuzkoako Lurraldeko AKZ	Operadorea	Agentea	60	Oiartzun	ML	1			36	32	7.2
20804	Gipuzkoako Lurraldeko AKZ	Bulego Teknikoa	Oinarritzko Eskala	4	Oiartzun	ML	1			3	2	7.1
20809	Gipuzkoako Lurraldeko AKZ	Operadorea	Ofizialondokoa	5	Oiartzun	ML	1			3	2	7.3
21822	Guardiako Ertzain-etxea	EI/GI	Oinarritzko Eskala	1	Laguardia	ML	1	OIK11/IKI		1	1	8
21922	Laudioko Ertzain-etxea	EI/GI	Oinarritzko Eskala	1	Laudiol/Lodio	ML	1	OIK11/IKI		*		8

2022ko abenduaren 30a, ostirala

3. 35. jarraibidea. Lekukoen eta adituen babesa.
4. 37. jarraibidea. Atzerriko herrialdeetarako sortutako SIS seinalamenduak.
5. 38. jarraibidea, SIS/DBSN seinalatzea (Estatu mailan)
6. 63. jarraibidea: Desagertutako pertsonak, gorpuk eta identifikatu gabeko gorpuzkiak.
7. 92. jarraibidea. Jarduketa-prozedura, UAS-Droneen hegaldiei dagokienez.
8. 93. jarraibidea. Polizia-ikerketaren eta komunikabideetarako harremanaren arteko jarduketa.
9. 00 Ikerketa/Inteligentzia zerbitzu-agindua, antolaketa eta funtzioak.
10. 05 Erretratu robotaren zerbitzu-agindua.
11. zerbitzu-agindua 13 Ikerketa kriminalistaren arloan jardutea.
12. zerbitzu-agindua 19tik 29ra Atxilotzeko Kudeatzeko Prozesua.
13. 30. zerbitzu-agindua Delituaren biktimari arretoa ematea.
14. 01 ABE Agindu operatiboa Ikerlana irekitzea eta konfiguratzeko.
15. DIC 07 Agindu operatiboa. Ebidentziak Toxikologiako Institutu Nazionalera bidaltzeko sistematika, azterketa kriminalista egiteko.
16. DIC 08 agindu operatiboa. Begi-ikuskapeneko prozesuaren kudeaketa, begi-ikuskapeneko lurralde-taldeetarako eta/edo ertzain-etxeetarako egina.
17. IBN 14 Agindu operatiboa Komunikazioen interzeptazioa kudeatzeko.
18. Zuzenbide prozesuaren alderdiak:
 - Bideo-grabazioak.

- Jarraipena egiteko eta lokalizatzeko gailu teknikoak erabiltzea.
- Informazioa masiboki biltegitratzeko gailuen erregistroa.
- Sarrera eta erregistroa.
- Posta gelditzea eta irekitzea.
- Begi-ikuskapena.
- Argazki-ezagupena eta taldeko ezagupena.
- Komunikazioen esku-hartzea.

18.2 ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 20345, 20346, 20445, 20446, 20545, 20546 ETA 20547 KODEDUN LANPOSTUAK, LURRALDEKO IKERKETA KRIMINALEKO OINARRIZKO ESKALAKOAK

Jarraian adierazitako gaietarako buruzko ezagutzen proba teoriko baztertzailerik bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gaituzteko.

GAIAK:

- 1.- Atxilotzeko eta entregatzeko Europako Aginduaren 20. jarraibidea.
2. 30 jarraibidea. Konfiskatutako ibilgailuak erabiltzeko baimena.
3. 35. jarraibidea. Lekukoen eta adituen babesa.
4. 37. jarraibidea. Atzerriko herrialdeek sortutako SIS seinalamenduak.
5. 38. jarraibidea, SIS/DBSN seinalatzea (Estatu mailan)
6. 63. jarraibidea: Desagertutako pertsonak, gorpuk eta identifikatu gabeko gorpuzkiak.
7. 92. jarraibidea. Jarduketa-prozedura, UAS-Droneen hegaldiei dagokienez.
8. 93. jarraibidea. Polizia-ikerketaren eta komunikabideekiko harremanaren arteko jarduketa.
9. 00 Ikerketa/Inteligentzia zerbitzu-agindua, antolaketa eta funtzioak.
10. 05 Erretratu robotaren zerbitzu-agindua.
11. zerbitzu-agindua 13 Ikerketa kriminalistaren arloan jardutea.
12. zerbitzu-agindua 19tik 29ra Atxiloteta Kudeatzeko Prozesua.
13. 30. zerbitzu-agindua Delituaren biktimari arretea ematea.
14. 01 ABE agindu operatiboa Ikerlana irekitzea eta konfiguratzeko.
15. DIC 07 agindu operatiboa. Ebidentziak Toxikologiako Institutu Nazionalera bidaltzeko sistematika, azterketa kriminalista egiteko.
16. DIC 08 agindu operatiboa. Begi-ikuskapeneko prozesuaren kudeaketa, begi-ikuskapeneko lurralde-taldeek eta/edo ertzain-etxeek egina.
17. IBN 14 agindu operatiboa Komunikazioen interzeptazioa kudeatzea.
18. Zuzenbide prozesalaren alderdiak:
 - Bideo-grabazioak- Jarraipena egiteko eta lokalizatzeko gailu teknikoak erabiltzea.

- Informazioa masiboki biltegitzeko gailuen erregistroa.
- Sarrera eta erregistroa.
- Posta gelditzea eta irekitzea.
- Begi-ikuskapena.
- Argazki-ezagupena eta taldeko ezagupena.
- Komunikazioen esku-hartzea.

19.1 ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: JOKO ETA IKUSKIZUN UNITATEKO 30604,
30605, 30611, ETA 30620 KODEETAKO LANPOSTUAK

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen proba teoriko bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIK:

ALDERDI OROKORRAK

1. 78. jarraibidea, kudeaketa aurreratuaren ereduari buruzkoa.
2. 80. jarraibidea, Ertzaintzaren gobernantzen egiturari eta kudeaketa-foroei buruzkoa

GAI ESPEZIFIKOAK

3. 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunena eta Jolas Jarduerena (2016ko urtarrilaren 7ko EHAA). 2, 3, 7, 8, 9, 11, 12, 15, 17, 18, 19, 28, 29, 30, 31, 32, 37, 42, 43, 44, 45 artikulua eta Legearen eranskina (Jendaurreko Ikuskizunena, Jolas Jardueren eta Establezimendu Publikoen Katalogoa).
4. 19/2022 Dekretua, otsailaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko jokoaren erregelamendu orokorra onartzen duen dekretua aldatzen duena (2022ko otsailaren 15eko EHAA). Hurrengo puntuak: 2, 6, 7, 8, 9, 11, 16, 17, 18, 28, 34, 35, 39, 40, 54, 58, 84 eta I. eranskina, Jokoen Plangintza, 1etik 11ra bitarteko puntuak, biak barne.

19.2 ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: JOKO ETA IKUSKIZUN UNITATEKO 30603 KODEKO LANPOSTUA

Jarraian adierazitako gaietarako buruzko ezagutzen proba teoriko bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIK:

ALDERDI OROKORRAK

1. 78. jarraibidea, kudeaketa aurreratuaren ereduari buruzkoa.
2. 80. jarraibidea, Ertzaintzaren gobernantzen egiturari eta kudeaketa-foroei buruzkoa.

GAI ESPEZIFIKOAK

3. 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunena eta Jolas Jarduerena (2016ko urtarrilaren 7ko EHAA). 2, 3, 7, 8, 9, 11, 12, 15, 17, 18, 19, 28, 29, 30, 31, 32, 37, 42, 43, 44, 45 artikulua eta Legearen eranskina (Jendaurreko Ikuskizunena, Jolas Jardueren eta Establezimendu Publikoen Katalogoa).
4. 19/2022 Dekretua, otsailaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko jokoaren erregelamendu orokorra onartzen duen dekretua aldatzen duena (2022ko otsailaren 15eko EHAA). Hurrengo puntuak: 2, 6, 7, 8, 9, 11, 16, 17, 18, 28, 34, 35, 39, 40, 54, 58, 84 eta I. eranskina, Jokoen Plangintza, 1etik 11ra bitarteko puntuak, biak barne.

ZEZEN-IKUSKIZUNAK

5. 183/2008 Dekretua, azaroaren 11koa, Zezen-ikuskizunen Araudia onartzen duena (2008ko abenduaren 19ko EHAA, 243. zk.), 2009ko urtarrilaren 30eko EHAA (21. zk.) argitaratutako hutsen zuzenketa barne.
6. 124/2010 Dekretua, apirilaren 27koa, Zezen-ikuskizunen Araudia onartzen duen Dekretua aldatzen duena (EHAA, 84. zk., 2010eko maiatzaren 7koa).

IKUSKIZUN PIROTEKNIKOAK

7. 400/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoarena, artifizio piroteknikoak dituzten ikuskizunei buruzkoa (EHAA, 199. zk., 1998ko urriaren 20koa).

20.1 ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 40114 OFIZIALA KODEKO LANPOSTUA, BRIGADA MUGIKORREKOA

Proba baztertzailer bat egin beharko da, jarraian adierazitako gai-zerrendari buruzko ezagutzen proba teorikoa. Gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira, eta 20 puntu edo gehiago lortu beharko dira gainditzeko.

GAI-ZERRENDA

1. 006. jarraibidea – Iraganbide publikoetan biltzeko eskubidea eta manifestatzeko eskubidea babestea.
2. 051. jarraibidea – Kalitatea kudeatzeko sistema (KKS).
3. 056. jarraibidea – Atxilotuen eta presoan ospitaleko zaintza eta jagoletza.
4. 059. jarraibidea – Jarduteko irizpide orokorrak hauteskunde-araubidearen mendeko prozesuak garatzen diren aldietan.
5. 067. jarraibidea – Polizia-bideoaren zaintza kudeatzea.
6. 073. jarraibidea – Armamentuaren, munizioaren eta istiluen aurkako beste elementu batzuen erabilera eta kontrola arautzea.
7. 084. jarraibidea – Gorabehera kritikoetarako erabaki-eremuak.
8. 007 bis. zerbitzu-agindua – Gertakari kritikoak.
9. 011. zerbitzu-agindua – Bide, toki eta establezimendu publikoetako kontrolak.
10. 048. zerbitzu-agindua – Poliziaren jarduna adingabeekin.
11. 008. zirkularra – Espetxeetako administrazioarekiko koordinazioa barneratuen eroanbideetan eta zaintzetan.
12. 013. zirkularra – Segurtasuna koordinatzea kirol-ekitaldietan.
13. 014. zirkularra – Ekintza-plana.
14. 002. agindu operatiboa (Herritarren Babeserako Alorra) – Presoak eta adingabeak lekualdatzeko prozedura.
15. Autonomia Erkidego mailan: 168/1998 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Ertzaintzak eta Udaltzaingoen bideokamerak erabiltzea arautu eta baimentzeko dena.
16. Ertzaintzaren zuzendariaren 078. jarraibidea, Ertzaintzaren kudeaketa aurreratuaren ereduari buruzkoa (04. berrik.).
17. Ertzaintzaren zuzendariaren 080. jarraibidea, Ertzaintzaren gobernantza-egiturari eta kudeaketa-foerei buruzkoa (03. berrik.).

18. 008. agindu operatiboa. PRI-Bizkor prebentzio-zerbitzua betetzeko prozedura eta berehalako erantzuna.
19. 051 zerbitzu-agindua, greba-eskubidea baliatzean poliziak esku hartzea.
20. Ikerketako Koordinazio Operatibo eta Teknikoko Alorraren (IKOTA) 007. prozedura, ohiko edo aldi baterako etxebizitzan bizilekua bortxatzen den kasuetan jarduteari buruzkoa.
21. Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea.

20.2 ERANSKINA

PROBAK: 40115, 40116 ETA 40117 KODEETAKO LANPOSTUAK,
BRIGADA MUGIKORRAREN UNITATEKOAK

PROBAREN ARIKETAK

Ariketa fisikoak parte-hartzaileen erantzukizunpean baino ez dira egingo; horretarako, kirol-ekipo egokia aurkeztu beharko dute.

Proba honetan 4 ariketa egingo dira, bi ataletan banatuta.

Lehenengo atalean indarra erakusteko 3 ariketa egingo dira. Atal hau osatzen duten hiru ariketetako bakoitzak 0 eta 10 puntu arteko balorazioa izango du. Atal hau gainditzeko: ezingo da proba bat baino gehiago ez gainditu, eta 3 ariketen puntuen baturak 18 puntu edo gehiago izan beharko du. Baldintza horietako bat ez betetzeak lehenengo atala ez gainditzea ekarriko du.

Bigarren atalean erresistentzia aerobikoko ariketa bakarra egin beharko da. Ariketa hau 0 eta 10 puntu artean baloratuko da. Ariketa honetan gutxienez 5 puntu lortzen ez badira, ez da ariketa gaindituko.

Gaitasun fisikoko proba gainditzeko, beharrezkoa izango da proba osatzen duten bi (2) ataletako bakoitza gainditzea.

GAITASUN FISIKOKO PROBAN SARTUTAKO ARIKETAK

1. Banku-presioa


Helburua: goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.

Deskribapena: banku baten gainean ahoz gora jarrita, hankak tolestuta, oinak lurrian eta eskuak sorbaldak baino pixka bat zabalago jarrita (erpuaren ermamia proba egiteko erabiltzen den barraren marra gorriak ukitzera iritsiko da), besoak sakon flexionatzea bularra barrarekin ukitu arte, eta, ondoren, osorik luzatzea, besoa altxaldi bakoitzean blokeatu arte.

Ariketa hasi ondoren, ezin izango da gelditu, ez eskuak hasierako heldulekutik mugitu, ez oinak lurretik altxatu, ez eta gorputzarekin konpentsazio-mugimendurik egin ere. Baldintza horietako bat betetzen ez bada, proba geldituko da eta ordura arte behar bezala egindako errepikapenak idatziko dira.

Guztira gizonezkoek 45 kilo altxatu behar dituzte eta emakumezkoek, ordea, 29 kilo.

Neurketa: ez dira zenbatuko behar bezala egin ez diren altxaldiak (flexio sakona bularra ukitu arte eta besoak erabat luzatzea).



Banku-presioaren baremoa

Gizonezkoak 45 kg	Nota	Emakumezkoak 29 kg
Errepikapenak		Errepikapenak
45	10	42
44	9	41
43	8,50	40
42	8,25	39
41	8	38
40	7,75	37
39	7,50	36
38	7,25	35
37	7	34
36	6,75	33
35	6,50	32
34	6,25	31
33	6	30
32	5,75	29
31	5,50	28
30	5,25	27
29	5	26
28	4,75	25
27	4,50	24
26	4,25	23
25	4	22
24	3,75	21
23	3,50	20
22	3,25	19
21	3	18

Gizonezkoak 45 kg	Nota	Emakumezkoak 29 kg
Errepikapenak		Errepikapenak
20	2,75	17
19	2,50	16
18	2,25	15
17	2	14
16	1,75	13
15	1,50	12
14	1,25	11
13	1	10
12	0,75	9
11	0,50	8
10	0,25	7
9	0	6

2. Beheko gorputz-adarretako leherketa-indarraren erresistentzia-testa

Hamabost (15) jauzi bertikal

Helburua: beheko gorputz-adarren leherketa-indarraren erresistentzia neurtzea.

Deskribapena: probarako ezarritako denboraren barruan (30 segundo) hamabost (15) jauzi jarraian egitean datza, jauzi bakoitzean ahalik eta altuera handiena lortzen saiatuz. Izangaia plataformaren gainean jarriko da, tente eta eskuak gerrian eta oinak aurrerantz dituela, sorbalden zabaleran, aztertzailearen aginduaren zain ariketari ekiteko. Hegaldi-faserako plataformatik irtetean, bai eta kontaktu-unean ere, hankak erabat luzatuta eduki beharko dira.

Neurketa: saialdi bat onartuko da. Neurketa-aparatuak zehaztuko du 15 jauzietan lortutako batez besteko altuera.



Beheko gorputz-adarretako leherketa-indarraren erresistentzia-testaren baremoa

Gizonezkoak		Emakumezkoak
Batez besteko altuera	Nota	Batez besteko altuera
34	10	29
33 - 33,9	9,5	28 - 28,9
32 - 32,9	9	27 - 27,9
31 - 31,9	8,5	26 - 26,9
30 - 30,9	8	25 - 25,9
29 - 29,9	7,5	24 - 24,9
28 - 28,9	7	23 - 23,9
27 - 27,9	6,5	22 - 22,9
26 - 26,9	6	21 - 21,9
25 - 25,9	5,5	20 - 20,9
24 - 24,9	5	19 - 19,9
23 - 23,9	4,5	18 - 18,9
22 - 22,9	4	17 - 17,9
21 - 21,9	3,5	16 - 16,9
20 - 20,9	3	15 - 15,9
19 - 19,9	2,5	14 - 14,9
18 - 18,9	2	13 - 13,9
17 - 17,9	1	12 - 12,9
16,9	0	11 - 9

3. Beso-trakzioa barra finkoan (gizonezkoak)

Helburua: goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.

Deskribapena: barra finko batetik zintzilik, esku-ahurrak aurrerantz dituela eta sorbalden zabalera baino pixka bat gehiago urrunduta, izangaiak besoak tolestu eta gorputza altxatuko du, kokotsarekin barra gainditzea lortu arte. Ondoren, gorputza hasierako posizioraino jaitsiko da, 1 edo 2 segundoko geldialdia egingo du, eta, ondoren, gora egingo du berriro. Ariketa hasi ondoren, ezin izango da atsedetik hartu, errepikapenen arteko nahitaezko geldialdietarako izan ezik.

Burua, une oro, enborra luzatuta egongo da. Kokotsak barra ukitzen badu burua atzera botata, hau da, lepoa luzatuta, altxaldia baliogabetzat joko da.

Ez da onartuko ez kulunkarik ez konpentsazio-mugimendurik. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren aurrean, barraren bertikaletik 35 cm-ra dauden bi euskarriren bidez lotuta. Listoia botatzen bada, amaitutzat emango da proba, eta behar bezala egindako errepikapenen kopurua idatziko da.

Ezin da eskularrurik erabili. Magnesia erabil daiteke (azterketaren tokian eskainiko da).

Neurketa: saialdi bat onartuko da. Izangaiak behar bezala egindako altxaldien kopurua idatziko da, aurreko jarraibideen arabera.



Barra finkoko beso-trakzioaren baremoa (gizonezkoak)

Gizonezkoak	
Errepikapenak	Nota
15	10
14	9,5
13	9
12	8,5
11	8
10	7
9	6
8	5
7	4
6	3
5	2
4	1
3	0

Barra finkoko beso-flexio jarraia (emakumezkoak)

Helburua: goiko gorputz-adarretako gihar-indarraren erresistentzia.


Deskribapena: izangaia banku batera igo eta barra finko batera helduko da, esku-ahurrak eta hatzak bere buruari begira dituela (begiratu beheko irudia) eta sorbalden zabaleran. Izangaiak besoak erabat tolestu eta gorputza altxatuko du, kokotsa barraren gainetik pasatu arte, ukitu gabe. Oinak bankuarekin kontaktuan egoteari uzten diotenetik aurrera, posizio horretan egon beharko du ahalik eta denbora luzeenean.

Ez da kulunkarik onartuko. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren aurrean, barraren bertikaletik 35 cm-ra dauden bi euskarriren bidez lotuta.

Burua, une oro, enborra luzatuta egongo da. Ezingo da kokotsa ukitu barrarekin

Ezin da eskularrurik erabili. Magnesia erabil daiteke (azterketaren tokian eskainiko da).

Neurketa: saialdi bat onartuko da. Kronometroa martxan jarriko da oinek bankuarekin kontaktua galtzen dutenean. Proba amaituko da kokotsa barra horizontalaren mailatik behera jaisten denean edo listoia eraisten denean.



Barra finkoko beso-flexio jarraiazen baremoa (emakumezkoak)

Emakumezkoak	
Denbora	Nota
1'35"	10
1'34"9 - 1'29"	9,5
1'28"9 - 1'23"	9
1'22"9 - 1'17"	8,5
1'16"9 - 1'11"	8
1'10"9 - 1'05"	7,5
1'04"9 - 59"	7
58"9 - 54"	6,5
53"9 - 49"	6
48"9 - 44"	5,5
43"9 - 39"	5
38"9 - 34	4,5
33"9 - 29"	4
28"9 - 25"	3
24"9 - 22	2
21"9 - 18	1
17"9	0

4. Course-Navette erresistentzia-testa

Helburua: erresistentzia aerobiko maximoa ebaluatzea. Proba honen bidez, izangaiaren erresistentzia-maila ebaluatu nahi da, intentsitate handiagoko edo txikiagoko esfortzuak denbora luzeagoan edo laburragoan egiteko.

Deskribapena: izangaia marra baten atzean jarriko da eta soinu-seinale batekin hasiko da proba. Korrika egingo du kontrako aldean dagoen marra zapaldu arte (20 metrora), eta soinu-seinale bat entzun arte itxarongo du lasterka jarraitzeko. Egoera hori test osoan zehar errepikatuko da.

Lasterketa-erritmoa audio-gailu baten bidez erregulatuko da. Gailu horrek soinu bat igorriko du tarte erregularretan.

Neurketa: izangaiaren batek honakoa eginez gero:

- Audio-gailuak adierazitako unean ez zapaltzea marra.
- Soinu-seinaleak markatzen duen erritmoaren aurretik joatea.
- Noranzkoa aldatzea marra zapaldu gabe.
- Biraketa zirkularrak egitea, marraren gainean pibotatu beharrenean.

Lehenengo abisua emango zaio. Aipatutako arrazoiren batengatik bigarren abisuren bat ematen bada, proba amaitutzat emango da, eta osatutako azken aldia idatziz jasoko da.

Course-Navette-ren baremoa

Gizonezkoak		Emakumezkoak
Aldia	Nota	Aldia
13 ½	10	12 ½
13	9	12
12 ½	8	11 ½
12	7,5	11
11 ½	7	10 ½
11	6,5	10
10 ½	6	9 ½
10	5,5	9
9 ½	5	8½
9 edo gutxiago	0	8 edo gutxiago

21.1 ERANSKINA

PROBAK: 40704 ETA 40705 KODEETAKO LANPOSTUAK, ESKU-HARTZE UNITATEKOAK

LEHENENGO PROBA: GAITASUN TEKNIKOA

40 puntuko balorazioa izango du. Zirkuitu konbinatu bat egingo da 3 ariketa hauekin:

- HK Mp-7rekin eta pistolarekin tiro egitea.
- Gidatzea.
- Eskalada eta HK G-36rekin tiro egitea

Proba gainditzeko, ariketa bakoitza gainditu beharko da.

PROBAREN EZAUGARRIAK: GAITASUN TEKNIKOA

Proba hau 3 ariketatan banatuta dago eta 40 puntuko balorazioa du, honela banatuta:

- 1. ariketa: tiro egitea, 20 puntuko balioa izango duena. Berroziko A tiro-eremuan egingo da.
- 2. ariketa: gidatzea, 5 puntuko balioa izango duena. Berroziko gidatze-pistan egingo da.
- 3. ariketa: proba konbinatu bat izango da, batetik eskalada eta bestetik arma luzearekin tiro egitea. Ariketak 15 puntuko balioa izango du. Berroziko aplikazio-dorrean egingo da.

Puntuazioa lortzeko, ariketa bakoitzean lortutako denbora partzialak eta tiroen eraginkortasuna baloratuko dira, eta aurrerago deskribatutako penalizazio batzuk ere kontuan hartuko dira.

Proba gainditzeko, ariketa guztiak gainditu beharko dira.

- 1. ariketa: 10 puntu gutxienez
- 2. ariketa: 2,5 puntu gutxienez
- 3. ariketa: 7,5 puntu gutxienez

Ariketak bi aldiz egin ahal izango dira, eta puntuazio onena lortu duena baliozkotzat joko da.

Proba teknikoetan, ariketa bakoitzean bi saiakera egitea baimentzen dela kontuan hartuta, ulertzen da lehenengo saiakerak aukera ematen diola izangaiari materialen funtzionamendua probatzeko, eta ez dela beharrezkoa proba gehigarri egitea.

Tiroko ariketa praktikoak horretarako ikusgai egongo diren armekin egin ahal izango dira, izangai guztiek aukera berberak izan ditzaten. Arma laburren artean nahi dutena aukeratu ahal izango dute. Probak egiteko honako arma hauek egongo dira: HKG36, HKMP7 eta, arma labur gisa, honakoak: HKUSPC eta GLOCK17; guztiek ere dagokien zorroa izango dute. Nahi duenak arauzko armaz egin ahal izango ditu probak.

Tiroko ariketa praktikoak egiteko erabiliko den munizioa fabrikatzaile eta lote berekoa izango da, proben emaitzan eraginik izan ez dezan. Arma desmuntatuta hasten diren tiro-probetan, izangaiek baldintza beretan aurkituko dituzte armaren piezak.

ARROPA ETA MATERIALAK

Ariketa buzo ofizialaren uniformearen jantzita egingo da (urdina edo beltza).

Probak egiten diren egunean zerbitzua ematen ari diren unitateko dotazio-botak eta -uhalaria eraman beharko dira, baita bi kargagailu-zorro ere. Dotazio-zorroak segurtasun-arkua izan beharko du.

Proba egiteko armak Esku-hartze Unitatearen dotaziokoak izango dira. Pistolaz tiro egiteko, agenteak bere dotaziokoa erabili ahal izango du.

Unitateak jarriko ditu norbera babesteko ekipamenduak, eta parte-hartzaileen eskura egongo dira horretarako zehaztutako eremuetan.


1. ARIKETA: TIRO EGITEA

Izangaia pistolaren munizioa sartzeko esleitutako eremura joango da. Eremu horretan, 10 kartutxo dituzten bi kargagailu eta 6 kartutxo dituen beste bat aurkituko ditu. Instruktoreak agindutakoan, bi kargagailu sartu beharko ditu kargagailu-zorroetan eta hirugarrena, berriz, arman. Izangaia aukeratuko du kargagailuen ordena. Instruktoreak agindutakoan, arma jomugarantz muntatu beharko du. Arma zorroan sartu eta zorroaren segurtasun-arkua jarriko du.

Arma munizioz kargatuta eta zorroan dagoela, ezarritako hasierako posizioan jarriko da. 6 aldiz egin beharko du tiro 6 distantzian, tiraldi bakoitzean tiro-kopurua eta horiek egiteko baldintzak aldatuta. Tiro egiten duenak, egoki irizten dionean, aldatu ahalko ditu kargagailuak. Arma blokeatu edo eten egiten bada, eta hori tiratzaileari egotzi ezin bazaio, ariketa hasi ahal izango da berriz.

«Q» tiro-jomugak edo antzekoak erabiliko dira (Alfa eta Charly inpaktu-zonadun kartoizko txartelak).

Izangaia bakoitzak bere zenbaki profesionala idatziko du, eta tiroen jomuga sinatuko du. Ariketa amaitu ondoren, emaitza erakutsiko zaio.



Bi inpaktu-zonetan egindako inpaktuak zenbatuko dira.

Instruktoreak hasteko agindua ematen duenean, kronoa martxan jarritz hasiko da ariketa, honako baldintza hauekin eta ezarritako ordenari jarraituz.

1. 1. TIRALDIA

- Jomugarako distantzia: 25 metro. Arma: HK MP-7 subfusila.

- Arma oinarrizko desmuntatze-egoeran egongo da, piezak mahai baten gainean daudela.

- MP-7ko kargagailu huts bat aurkituko da, eta mahai gainean ere egongo diren 5 kartuxoren munizioa jarriko da.

- Kargagailuan munizioa jarri ondoren, arman sartu eta arma jomugarantz bideratuz muntatuko da.

- PRONO ETZANDA posizioan jartzea; hortik 5 tiro egingo dira, eta arma mahai gainean utziko da ikuskatzeko posizioan.

2. 2. TIRALDIA

- Jomugarako distantzia: 20 metro.

- Arma: ertzainari esleitutako edo arauzko pistola.

- BELAUNA LURREAN jarrita, bi tiro egingo dira arma laburrarekin, eta hurrengo posiziora igaroko da.

3. 3. TIRALDIA

- Jomugarako distantzia: 15 metro.

- Arma: pistola.

- ZUTIK posizioan 2 tiro egingo dira.

- PRONO ETZANDA posiziora igaro, eta 2 tiro egingo dira.

- Eskuinera 360°-ko biraketa egin eta 2 tiro egingo dira.

- Ezkerretara 360°-ko biraketa egin eta 2 tiro egingo dira.

4.- 4. TIRALDIA

- Jomugarako distantzia: 10 metro.

- Arma: pistola.

- ZUTIK posizioan 2 tiro egingo dira.

- BELAUNA LURREAN posiziora igaro, eta 2 tiro egingo dira.

- ERDIABDOMENENKO posizioan jarrita, 2 tiro egingo dira.

5. 5. TIRALDIA

- Jomugarako distantzia: 7 metro.
- Arma: pistola.
- ZUTIK posizioan 5 tiro egingo dira jomugarantz.

6.- 6. TIRALDIA

- Jomugarako distantzia: 5 metro.
- Arma: pistola.
- Bertan dagoen ezkutu balistiko bat jasoko da.
- ZUTIK posiziotik, burua ezkutuaren atzean duela, esku batekin 5 tiro egingo dira jomugara, beste eskuarekin ezkutuari eutsiko zaion bitartean, ezkutuarekin estaliz.

Azken tiroarekin kronometroa geldituko da.

Ariketa amaitutakoan, arma ikuskatu eta zorrora eramango da.

7. PENALIZAZIOAK

Armarekin egindako segurtasun-akats larriek 1. ariketa ez gainditzea ekarriko dute. Segurtasun-akatsztat joko da nahi gabe tiro bat egitea eta kanoi-ahoa pertsonengana bideratzea. Akatsa lehenengo saiakeran egiten bada, ezin izango da bigarren saiorik egin, eta 0 puntu lortuko ditu. Akatsa bigarren saiakeran egiten bada, lehenengoaren puntuazioa ere baliogabetuko du, eta, era berean, 0 puntuko kalifikazioa lortuko du.

Edozein tiraldia oker eginez gero, akatsa egin den tiraldiaren gehieneko puntuazioa baliogabetuko da. Tiraldia oker egindakotzat joko da, baldin eta ariketaren arduradunak emandako jarraibideak ez badira betetzen, tiroaren sekuentziari buruz edo posizioari buruz, edo arduradunak behar bezala argudiatutako antzeko beste batzuk.

2. ARIKETA: GIDATZEA.

Ariketa hau 1. eremuan hasiko da (irteera-lekua), ibilgailuaren barrutik abiatuko da (motorra piztuta, lehenengo abiadura sartuta, leihatilak igota eta segurtasun-uhala jarrita).

Aztertzailearen seinalearekin hasiko da ariketa, eta honako betearazpen-agindu hauek izango ditu:

- Ariketa 1. eremutik hasiko da (irteera-denborak hartzeko tokia).

- 2. kaiolaren aurrean aurreko tronpoa eginez hasiko da, eta ibilgailua 2. kaiolan aparkatuko da atzeraka. Kaiola horretatik aurrera irtengo da eta 3. kaiolaren aurrean beste tronpo bat egingo da. Ibilgailua 3. kaiolan aparkatuko da atzeraka.


Aparkatzea baliozkotzat jotzeko, kaiolako konoen 1. lerroa gainditu beharko da, bai ibilgailuaren aurreko ardatzarekin, bai atzekoarekin.

- 3. kaiolara iritsitakoan, aurreko eslalomari ekingo zaio, eta eslalomaren 1. konoa ibilgailuaren ezkerrean utziko da, eta 4. kaiolan aurrez aurre aparkatu. Kaiolako konoen 1. lerroa gainditu beharko da, bai ibilgailuaren aurreko ardatzarekin, bai atzekoarekin.

- 4. kaiolatik eta atzeraka atzeko eslalom bat egingo da, eslalomaren 1. konoa ibilgailuaren eskuineko aldean utzita, azken konora iritsi arte. Bertan, atzeko tronpo bat egingo da, eta ibilgailua gidatze-pistaren sarrerara bideratuko da. Bertan, argazkian jasotako ibilbidea hasiko da.

- Gidatze-pistako ibilbidea amaitutakoan, ibilgailuaren aurreko ardatzak helmuga gisa markatutako lerroa gainditzen duenean geldituko da denbora.

Ariketa egiten ari den bitartean akats mekaniko baten ondorioz ibilgailua gelditzen bada, ariketa balio gabetzat joko da eta proba hasieratik hasiko da.





Gidatzeko testa 0 eta 5 puntu artean baloratuko da. Puntu horiek ariketa eginez lortzen dira, pistako trebetasuna eta zirkuituko abiadura bateratuz.

2. PENALIZAZIOAK

Honako akats hauetako bat egitea puntu 1ekin zigortuko da akats bakoitzeko:

- Mugitutako kono bakoitzeko, behar bezala mugatutako eremuetatik kanpo (lurrean margotutako eremuak). Mugitutako konotzat hartuko da konoak lurrean margotutako lerroa gainditzea.
- Ibilgailuaren aurreko eta atzeko ardatzarekin konoen 1. lerroa gainditu gabe kaiolan egiten den aparkaleku bakoitzeko.
- Adierazitako eremutik gainditu gabeko kono bakoitzeko.
- Kaioletan 4 konoek mugatutako eremutik kanpo aparkatzen den bakoitzeko.
- Mekanikoa ez den akats baten ondorioz motorra gelditzea.

2.1. AKATS LARRIAK

Honako akats hauetako bat eginez gero, ariketa honetan 0 puntu lortuko dira:

- Ibilgailua iraultzea.
- Gidatzeko zirkuituan, ez egitea deskribatutako ibilbidetik.

Akatsa lehenengo saiakeran egiten bada, ezin izango da bigarren saiakeran egin, eta 0 puntu lortuko ditu. Akatsa bigarren saiakeran egiten bada, lehenengoaren puntuazioa ere baliogabetuko du, eta, era berean, 0 puntuko kalifikazioa lortuko du.

3. ARIKETA: ESKALADA ETA ARMA LUZEAREKIN TIRO EGITEA

Gidatzeko ariketa amaitutakoan, izangaia aplikazio-dorrera joango da, probako segurtasun-elementuez hornitzeko.

Izangai bakoitzak bere zenbaki profesionala idatziko du, eta tiroen jomuga sinatuko du. Ariketa amaitu ondoren, emaitza erakutsiko zaio.

1. KANPOKO ESKALATIK IGOTZEA


Izangaiak esleitutako eremuan aurkituko duen ekipoa jarriko du, eta honako hauek izango ditu:

- Eskalada-kaskoa
- Arnes sinplea
- RIG jaisgailua
- Maromarako eskularruak

Material hori ariketa osoan zehar eraman beharko da, eta arma luzearekin tiro egiteko kaskoa eta eskularruak kendu ahal izango dira.

Jarraian, ariketa zertan datzan azalduko dugu

Hegoaldeko aldean jarriko da, kanpoko eskalaren ondoan, eta, bertan, arnesean ainguratuko da segurtasun atzeragarriko sistema (SRL 15 m-ko safe man-a). Behin jarrita, seinalea entzundakoan, kronoa martxan jarriko da, eta kanpoko eskalatik igotzen hasiko da, dorrearen erdiko terrazaraino, non nahitaez aseguru-sistema aldatuko den. Handik, dorrearen teilatura igotzen jarraituko da, eta han kenduko da segurtasun atzeragarriko gailua.



2. BILGUNEA

- Mendebaldeko aldean, bilgune bat egingo da bi ainguratze-punturekin. Horretarako, "8" korapiloa erabiliko da. Horietako bat, gutxienez, sinu bidezkoa izango da, eta soka-amaierako korapilo bat, rappel bat egiteko puntua simulatuz.

- Ainguraketa-puntu nagusizat mosketoia hartuko da, eta bigarren puntutzat, berriz, uztaila.

- Ezin izango da probarekin jarraitu korapiloak zuzen egon arte, jaisteko erabilitakoak simulatzen baitituzte.



ZORTZI SINU BIDEZ ETA ZORTZI MOSKETOI BIDEZ


3. RAPPEL-A

- Mendebaldeko aldetik, rappel jaitsiera egingo da, RIG jaisgailu gisa erabiliz, Erdiko balkoiraino.

- Jaitsiera hasi baino lehen, jaisgailuaren funtzionamenduaren segurtasun-proba bat egin beharko da terrazan, instruktorearen jarraibideak betez.

- Nahitaezkoa da eskularruak erabiltzea jaisteko.

- Erdiko balkoira iritsitakoan, soka RIGtik askatuko du eta dorrearen ekialdeko aldera joango da.



4. TIRALDIA DORRETIK

Ekialdeko aldean, honako material hau aurkituko du burusi baten gainean:

- Tiro-betaurrekoak
- Tiro-kaskoak
- Arma: HK G-36 fusila, aimpointarekin, oinarrizko desmuntatze-posizioan.
- Kargagailu hutsa, burusi gainean 5 kartutxo dituen.

Betaurrekoak eta tiro-kaskoak jarriko ditu, eta tiraldia baldintza hauetan egingo da:

- Jomugarako distantzia: 50 metro.
- Arma muntatzea eta egokitzat jotzen den posizioa hartzea.
- Irudiaren jomugarantz 5 tiro egitea.
- Arma lurrian uztea kargagailurik gabe, ikuskatzeko moduan, baita kaskoak eta tiro-betaurrekoak ere, eta hurrengo mugimendua egitea.

Tiro egiteko erabiliko den jomuga «doitasunezkoa» izango da, eta zirkulu beltzean egindako inpaktuak bakarrik izango dira baliozkoak. Talkak jomugaren alde beltza ukitzea nahikoa izango da baliozkotzat jotzeko.

2022ko abenduaren 30a, ostirala



5. MAROMAKO JAITSIERA

- Helikoptero-patinaren eremuan, maroman behera jaitsiko dira.
- Patinera irten aurretik, instruktore batek kontrolatutako segurtasun-sistema bat jarriko da arneseen, eta babes-eskularruak behar bezala jarriko dira eskuetan.
- Segurtasun-soka jarri ondoren, patinean eseri eta maromatik jaisten hasiko da dorrearen oinarriaraino.
- Kronoa lurra ukitzen den unean geldituko da.



6. PENALIZAZIOAK

Hurrengo akatsetako bat eginez gero, ariketa honetan 0 puntu lortuko dira.

- Armaren segurtasun-akatsak. Segurtasun-akatsa da nahi gabe tiro bat egitea, aplikazio-dorreko edozein elementutan talka egitea eta kanoia edozein pertsonari zuzentzea, edo, ariketaren arduradunaren iritziz, bertaratuen edo izangaiaren beraren bizitza arriskuan jarri duen edozein egoera eragitea.

- Igotzeko segurtasun-elementua ez jartzea.

- Segurtasun-proba ez egitea RIGarekin balkoian.

- Bilgunea ez egitea edo oker egitea.

- Soka oker jartzea RIGen.

- Ez eramatea Maromako eskularrurik.

- Aztertzaileak sokak manipulatu behar izatea, istripurik ez gertatzeko.

- Aztertzaileak izangaia geldiarazi behar izatea, arestian deskribatutako segurtasun-akatsen bat egin ez dezan, edo arrisku-egoera batean jar ez dadin.

- Ibilbideko fase bakoitza dokumentu honetan deskribatzen den moduan ez egitea.

- Aztertzaileak, istripurik ez gertatzeko, maromako jaitsieran jarritako segurtasun-soka erabiltzea.

Akatsa lehenengo saiakeran egiten bada, ezin izango da bigarren saiarik egin, eta 0 puntu lortuko ditu. Akatsa bigarren saiakeran egiten bada, lehenengoaren puntuazioa ere baliogabetuko du, eta, era berean, 0 puntuko kalifikazioa lortuko du.

BAREMOA ETA PUNTUAZIO-FORMULA

- 1. ariketa: tiro egitea, 20 puntuko balioarekin. Berroziko A tiro-eremuan egingo da.

- 2. ariketa: gidatzea, 5 puntuko balioarekin. Berroziko gidatze-pistan egingo da.

- 3. ariketa: eskaladako eta arma luzearekin egiteko tiroko proba konbinatua, 15 puntuko balioarekin. Berroziko aplikazio-dorrean egingo da.

1. ARIKETA: TIRO EGITEA

BAREMOA			
DENBORA	PUNTUAK	INPAKTUAK	PUNTUAK
1'15"	10	31	10
1'18"	9.5	30	9
1'21"	9	29	8
1'24"	8.5	28	7
1'27"	8	27	6
1'30"	7.5	26	5
1'33"	7	< 26	0
1'36"	6.5		
1'39"	6		
1'42"	5.5		
1'45"	5		
1'48"	4.5		
1'51"	4		
1'54"	3.5		
1'57"	3		
2'00"	2.5		
> 2'00"	0		

Proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa: 10 puntu

2. ARIKETA: GIDATZEA

BAREMOA			
DENBORA	PUNTUAK	INPAKTUAK	PUNTUAK
1'26"	5	1'40"	3.25
1'28"	4.75	1'42"	3
1'30"	4.5	1'44"	2.75
1'32"	4.25	1'46"	2.5
1'34"	4	1'48"	2.25
1'36"	3.75	1'50"	2
1'38"	3.5	>1'50"	0

Proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa: 2,5 puntu

3. ARIKETA: ESKALADA ETA TIRO EGITEA ARMA LUZEAREKIN

BAREMOA			
DENBORA	PUNTUAK	INPAKTUAK	PUNTUAK
<8'	12.5	5	2.5
8'	12.5	4	2
8'10"	12	<4	0
8'20"	11.5		
8'30"	11		
8'40"	10.5		
8'50"	10		
9'	9.5		
9'10"	9		
9'20"	8.5		
9'30"	8		

BAREMOA			
DENBORA	PUNTUAK	INPAKTUAK	PUNTUAK
9'45''	7.5		
10'	7		
10'15''	6.5		
10'30''	6		
10'45''	5.5		
>10'45''	0		

Proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa: 7,5 puntu

GAINDITZEKO FORMULA

Gaitasun teknikoko proba gainditzeko, ariketa bakoitzean gutxieneko puntuazioa lortu beharko da.

GAITASUN TEKNIKOKO BIGARREN PROBA

20 puntu emango zaizkio. Indar-erakustaldiak baloratzeko test anizkoitza (12 puntu) eta erresistentzia-testa (8 puntu) izango dira.

Proba gainditzeko, bi testak gainditu beharko dira.

Proba honek 20 puntuko balioa du eta bi test fisikor osatzen dute: indar-erakustaldiak baloratzeko test anizkoitza, 12 puntukoa, eta erresistentzia-testa (Course Navette), 8 puntukoa.

Baldintza fisikoa gainditzat jotzeko, bi testak gainditu beharko dira, aurrerago deskribatutako gainditze-formulekin.

INDAR-ERAKUSTALDIAK BALORATZEKO TEST ANIZKOITZA

Test honek 8 ariketa ditu.

Ariketa bakoitzak 30 segundoko iraupena izango du. Testa egiten duenak beste 30 segundoko errekupeazioa izango du ariketen artean. Horrela, 30 segundoko ahalegin- eta errekupeazio-aldien segida osatuko da.

Jarraian deskribatutako test-ariketetan, izangaiak ahalik eta errepikapen gehien lortu beharko ditu. Ariketa bakoitzak gutxieneko errepikapen kopuru bat du bertan puntuatu ahal izateko. Gutxieneko errepikapen kopuru horretatik aurrera, puntuazioa handituz joango da, ariketaren gehieneko baliora iritsi arte.

- 1. ariketa. Suhiltzaileen eskala.
- 2. ariketa. Aurre-alboko muskulatura abdominala.
- 3. ariketa. Besoen trakzioa barra finkoan.
- 4. ariketa. Beheko muskulatura abdominala.
- 5. ariketa. Beso-flexioa ahoz behera etzanda.
- 6. ekitaldia. Hedapen orokorra.
- 7. ariketa. Trizeps frantsesa.
- 8. ariketa. Beheko gorputz-adarraren indar esplosiboaren erresistentzia-testa (15 jauzi)

Ariketak adierazitako hurrenkeran egingo dira.

Testaren azken puntuazioa ariketa bakoitzean lortutako partzialen batura izango da, minimoetatik abiatuta.

1. ariketa: Suhiltzaileen eskala

Helburua: Goiko atalaren indar-erresistentzia.

Ariketaren deskribapena: Sabaiari edo paretari horizontalean (lurrarekiko paraleloan) lotuta dagoen zurezko eskailera baten lehen mailatik zintzilik, bi eskuak ahoz gora helduta (eskuak sorbaldeen

zabaleran), hankak orkatiletatik lotuta zinta elastiko baten bidez eta tolestuta 90° inguruko angelua osatuz, oinak lurra ukitu gabe (1. argazkia). Hautagaiak eskaileraren luzera osoa (13 maila) igaro beharko du eta hasierako posizioa itzuli beharko du (joan eta etorri), ahal beste aldiz 30 sg edo gutxiagoko denboran. Eskaileratik aurrera egiteko modua mailaz maila izango da, horietako bat ere gainditu gabe eta zangoen hasierako posizioari eutsiz (2. argazkia)



1. argazkia



2. argazkia



3. argazkia



4. argazkia

Izangaiarentzako argibideak: Lehen mailatik zintzilikatu besoak luzatuta, hankak orkatiletatik lotuta zinta elastiko baten bidez, eta tolestuta, 90° inguruko angelua osatuz. Bi eskuak ahoz gora helduta, mailaz maila aurrera egin azkeneraino iritsi arte, buelta eman azken mailan (3. argazkia) eta helduleku eta gorputz-jarrera berarekin aurrera egin abiapunturaino (4. argazkia). Ekintza hori ahal beste aldiz 30 sg edo gutxiagoko denboran egin beharko da.

Neurketa: Saiakera bat baimenduko da. Idatzi egingo da zenbat denbora eman duen izangaiak eskaileran zehar joan-etorriko ibilbidea behar bezala egiten.

Antolaketa: Aztertzaileak kontuan hartuko du ariketarako ezarri diren argibide guztiak bete direla. Horrek ariketa baliozkoa edo baliogabea deklaratzeko ahala izango du.

Materiala eta instalazioa: kronometroa.

2. ariketa: Aurre-alboko muskulatura abdominala.

Helburua: Aurre-alboko muskulatura abdominalaren indar-erresistentzia.

Ariketaren deskribapena: Ahoz gora etzanda, hankak elkartuta eta eskuak garondoan eta oinak elkarrekin lotuta. Aldaka eta belauneko 90°-ko flexioan (1. argazkia). Enborra ezkerretarantz biratuz flexioa egiten da ezkerreko belauna eskuineko ukondoarekin ukituz (2. argazkia), hasierako posizioa itzuliz (4. argazkia) eta ezkerreko ukondoarekin eskuineko belauna ukituko da (3. argazkia). Sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatzea, ariketa egiteko ezarritako denboran.



1. argazkia



2. argazkia



3. argazkia



4. argazkia

Izangaiarentzako argibideak: - Ahoz gora jarri, hankak eta oinak elkarrekin eta eskuak garondoan lotuta. Aldakan eta belaunean 90°-ko flexioan; - enborra ezkerretarantz biratuz flexioa hasi ezkerreko belauna eskuineko ukondoarekin ukituz, - hasierako posizioa itzuliz, garondoa eta ukondoak lurra ukituz; - ondoren ezkerreko ukondoarekin eskuineko belauna ukituko da. Ekintza ahalik eta gehien zuzen errepikatzea ezarritako denboran.

Neurketa: Saiakera bat baimenduko da. Ariketak irauten duen 30 sg-tan zuzen egindako errepikapenen kopurua idatziko da, jarraibideen arabera.

Antolaketa: Aztertzaileak kontuan hartuko du ekitaldirako ezarri diren argibide guztiak bete direla. Horrek ariketa baliozkoa edo baliogabea deklaratzeko ahala izango du.

Materiala eta instalazioa: Koltxoneta, horma-barrak, kronometroa, errepikapenen kontagailua.

3. ariketa: Besoen trakzioa barra finkoan.

Helburua: Bizkarreko muskulaturaren eta goiko gorputz-adarretako muskulaturaren indar-erresistentzia.

Ariketaren deskribapena: Barra finko batetik zintzilik, ahoz gora helduta eta eskuak sorbalden zabaleran (1. argazkia), izangaiak besoak tolestu eta gorputza altxatuko du, kokotsarekin barra gainditzea lortu arte (2. argazkia). Ondoren, gorputza hasierako posizioa jaitsiko da (besoak luzeran eta hankak gurutzatuta eta gutxi gorabehera 90°-ko angeluan tolestuta), eta sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatuko da (3. argazkia).


Ez da onartuko kulunkatzerik. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren aurrean, bi euskarriren bidez eutsita, barraren bertikaletik 35 cm-ko distantziara, eta lurretik 1,50 m-tara.

Ezin izango da esku bakarrarekin barrari lotuta egon, baina heldulekua aldatu ahal izango da.

Ezin da eskularrurik erabili. Magnesia erabil daiteke.



1. argazkia



2. argazkia



3. argazkia

Izangaiarentzako argibideak: Barratik zintzilikatu besoak luzeran eta hankak gurutzatuta eta tolestuta 90° inguruko angeluan. Eskuak ahoz gora heldu, beso-trakzioei ekin, kokotsarekin barra gainditu arte. Hasierako posizioa itzuli (aurretik jarritako listoa eraisten duten kulunkak saihestu). Ekintza ahalik eta gehien errepikatzea, ariketak irauten duen bitartean, 30 s.

Neurketa: Saiakera bat baimenduko da. Kokotsak barra behar bezala ukitzea edo gainditzea lortzen duen aldien kopurua idatziko da, ezarritako denboraren barruan eta listoa bota gabe.

Antolaketa: Aztertzaileak kontuan hartuko du ariketarako ezarri diren argibide guztiak bete direla. Hark ariketa baliozkoa edo baliogabea dela deklaratzeko ahala izango du.

Materiala eta instalazioa: Barra finko horizontala, lurretik gutxienez 200 cm-ra jarria, errepikapenen kontagailua, magnesia, listoa eta euskarriak, kronometroa.

4. ariketa: Beheko muskulatura abdominala.

Helburua: Beheko muskulatura abdominalaren indar-erresistentzia.

Ariketaren deskribapena: Ahoz gora jarrita, zangoak elkartuta eta eskuak garondoan elkarri lotuta, enborra lurrean jarrita, hankak luzatuta (belaunak erabat luzatuta eta oin-zolak tolestuta), zorua 20 cm-ko altueran ukitu gabe (1. argazkia). Zangoak txandaka jaso, sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatuz (2. eta 3. argazkiak).

Beheko gorputz-adarrak ez du lurrarekin kontakturik izango. Gorputz-adarra lurretik 20 cm-ra igo beharko da. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren oinen aurrean, bi euskarrik eutsita, 35 cm-ko distantzian euskarrien artean, eta lurretik 20 cm-ko altueran.



1. argazkia



2. argazkia



3. argazkia

Izangaiarentzako argibideak: - Etxanda, ahoz gora, hankak elkartuta eta luzatuta, lurra ukitu gabe, 20 cm-ko altueran - eskuak garondoan gurutzatuta, lurra ukituz. - enborra lurrean erabat jarrita. - zangoak mugitzen hasi, txandaka. Ekintza ahalik eta gehien errepikatzea, ariketak irauten duen bitartean.

Neurketa: Saiakera bat baimenduko da. Ariketak irauten duen bitartean, 30 sg behar bezala gauzatuta lortutako errepikapenen kopurua adieraziko da.


Antolaketa: Aztertzaileak kontuan hartuko du ariketarako ezarri diren argibide guztiak bete direla. Horrek ariketa baliozkoa edo baliogabea deklaratzeko ahala izango du.

Materiala eta instalazioa: errepikapenen kontagailua, kronometroa, listoia eta euskarriak.

5. ariketa: Beso-flexioa ahoz behera etzanda.

Helburua: Goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.


Ariketaren deskribapena: Prono etzanean, ahurrak haien artean sorbalden zabalera berdinarekin jarrita. Oinak batera, eta hankak eta enborra osorik luzatuta (1. argazkia). Izangaiak besoak sakon tolestu beharko ditu, kokotsarekin lurra ukitu arte (2. argazkia). Mugimendua amaitutakoan, izangaiak ukondoa osorik luzatu beharko du (3. argazkia). Errepikatu sekuentzia hau ahalik eta gehien ariketak irauten duen bitartean, 30 s.



1. argazkia



2. argazkia



3. argazkia

Izangaiarentzako argibideak: Prono etzanean jarri, ahurrak haien artean sorbalden zabalera berdinarekin jarrita. Oinak batera, eta hankak eta enborra osorik luzatuta– besoak sakon tolesteari ekin lurra kokotsarekin ukitu arte – ukondoa osorik luzatu hasierako posiziora itzuliz. Ekintza ahalik eta gehien errepikatu, ezarritako denboran behar bezala.

Neurketa: Saiakera bat baimenduko da. Idatzi egingo da zenbat errepikapen egin diren zuzen ariketaren iraupenaren 30 sg-tan, jarraibideen arabera, besterik ezin egin arte. Exekuzioan ez da onartuko enborra edo aldaka konpentsatzeko mugimendurik, eta aldaka zein enborra lerro zuzenean egongo dira. Ezin izango da kontakturik egin kokotsa ez den gorputzeko beste atalekin.

Antolaketa: Aztertzaileak kontuan hartuko du ariketarako ezarri diren argibide guztiak bete direla. Horrek ariketa baliozkoa edo baliogabea deklaratzeko ahala izango du.


Materiala eta instalazioa: kronometroa, errepikapenen kontagailua.

6. ariketa: Hedapen orokorreko proba.


Helburua: Muskulatura hedatzailearen indar-erresistentzia. Ariketaren deskribapena: Kukubilko hasierako posizioan, hankak tolestuta. Besoak enberraren aurrean eta hanken artean (1. argazkia). Izangaiak jauzi bat egin beharko du, besoak eta hankak airean zabalduz. Jauziak irauten duen bitartean, oinek zoruko palmo bateko altuera gainditu beharko dute (2. argazkia). Izangaiak ahalik eta gehien errepikatu beharko du sekuentzia hori.



1. argazkia



2. argazkia



3. argazkia

Izangaiarentzako argibideak:

Kokoriko jarri, hankak tolestuta. Besoak enberraren aurrean eta hanken artean - hasi jauziak besoak eta zangoak airean zabalduz lurretik palmo batera. Ekintza ahalik eta gehien errepikatzea.

Neurketa: Saiakera bat baimenduko da. Behar bezala egindako jauzien kopurua idatziko da, oharren arabera, ariketak irauten duen bitartean, 30 s.

Antolaketa: Aztertzaileak kontuan hartuko du ekitaldirako ezarri diren argibide guztiak bete direla. Hark ariketa baliozkoa edo baliogabea deklaratzeko ahala izango du.

Materiala eta instalazioa: errepikapenen kontagailua, kronometroa.

7. ariketa: Proba: trizeps frantsesa.

Helburua: Trizepsaren muskulatura hedatzailearen indar-erresistentzia neurtzea.

Ariketaren deskribapena: Ahoz gora etzanda, hankak elkartuta, 30 cm-ko altuera duen banku suediar baten gainean orpoak jarrita, besoak luzatuta eta 42 cm-ko altuera duen beste banku batean jarrita, sorbalden zabaleraren arabera (1. argazkia), besoak tolestu egingo dira, besoaren eta besaurrearen arteko 90°ko angelua lortu arte (2. argazkia). Izangaiak ahalik eta gehien errepikatu beharko du sekuentzia hori, ariketa egiteko ezarritako denboraren barruan, 30 s.



1. argazkia



2. argazkia



3. argazkia

Izangaiarentzako argibideak:

Zangoak elkartuta jarri behar dira, eta orpoak 30 cm-ko altuerako banku baten gainean jarrita; besoak luzatuta eta 42 cm-ko altuerako beste banku batean jarrita, sorbalden zabaleraren arabera; besoak tolestu behar dira, besoaren eta besaurrearen artean 90°-ko angelua lortu arte; eta, ondoren, ukondoa luzatu behar da osorik (3. argazkia). Errepikatu ekintza ahalik eta gehien ariketak irauten duen bitartean, 30 s.

Neurketa: Saiakera 1 baimenduko da. Idatzi egingo da zenbat errepikapen egin diren zuzen ariketaren iraupenaren 30 sg-tan, jarraibideen arabera, besterik ezin egin arte. Exekuzioan ez da onartuko enborra edo aldaka konpentsatzeko mugimendurik.

Antolaketa: Aztertzaileak kontuan hartuko du ariketarako ezarri diren argibide guztiak bete direla. Hark ariketa baliozkoa edo baliogabea deklaratzeko ahala izango du.

Materiala eta instalazioa: banku suediarra eta kutxa, errepikapenen kontagailua, kronometroa.

8. ariketa: Beheko gorputz-adarraren indar esplosiboaren erresistentzia-testa (15 jauzi).

Helburua: Beheko gorputz-adarraren indar esplosiboaren erresistentzia neurtzea.

Ariketaren deskribapena: Hamabost (15) jauzi jarraian egitean datza, ariketarako ezarritako denboraren barruan (30 segundo), jauzi bakoitzean ahalik eta altuera handiena lortzen saiatuz. Ariketaren azken emaitza egindako jauzien altueren batezbesteko aritmetikoaren berdina izango da. Jauziak neurketa-sistema optiko baten bidez egin beharko dira, kontaktu- eta hegaldi-denborak baloratu ahal izateko. Bai plataformatik irteteko unean, bai hegaldi-fasean, bai kontaktua egiteko unean, hankak erabat zabalduta eduki beharko dira.



1. argazkia



2. argazkia

Izangaiarentzako argibideak:

Jarri plataformaren gainean, tente eta eskuak gerrian. Oinak aurrerantz, sorbalden zabaleran banatuta eta neurketa-sistema optikoarekin kontaktuan (1. argazkia); itxaron aztertzailearen agindua ariketa hasteko; - Une horretan hasiko dira hamabost (15) jauziak egiten horretarako ezarritako denboraren barruan (30 s). Aireratu aurreko bulkada-mugimendua belauneko artikulazioaren 90° inguruko flexioaren bidez egitea gomendatzen da.

Esleitutako balio guztiak gizonezkoentzat dira; emakumezkoek % 20ko zuzenketa-faktorea izango dute, bai balio horiek handitzeko bai murrizteko, proba batzuetan.

Proben ordena antolakuntzako eta meteorologiako gaien arabera egingo da.

1. Autosorospeneko eta/edo arriskuaren kudeaketako proba teknikoak (Proba baztertzaila): 10 puntu

Sorospen/autosorospen eta/edo arriskuaren kudeaketako kasu bi gauzatzea, Zaintza eta Erreskate Unitateko mendi-kodeetako lanpostuetara sartzeko betekizun gisa eskatzen diren titulazioen gaitasunen garapenean sartzen diren edukiekin zerikusia dutenak.

Kasu bakoitzak 5 puntuko gehieneko baremoa du.

Gainditzeko irizpideak: proba gaindituta geratuko da izangaiak kasua arrakastaz, behar besteko segurtasunez eta ezarritako denboraren barruan ebatzi duenean.

Penalizazio-irizpideak: kasua ez gauzatzea, dela behar den materiala oker edo behar beste ez aukeratzeagatik, dela behar den teknika ez erabiltzeagatik. Bizitzarako segurtasun-falta dakarren edozein maniobra. Gehieneko denbora gainditzea.

Penalizazio-irizpideak:

- Materialak aukeratzea: proba egiteko ezinbestekoa dena ez eramatea.
- Izangaiaren segurtasuna arriskuan jar dezaketen oinarrizko segurtasun-akatsak egitea.
- Denbora: baimendutako gehienekoa gainditzea (ezarritako gehieneko denbora amaitutakoan, ariketa geldituko da).
- Proba ez egitea.
- Deskribapenaren arabera ez egitea; betiere adierazitako teknikak zehaztutako segurtasun-baldintzak bete behar dira.
- Proba ez amaitzea.

- Kirol-modalitaterako behar den material espezifikoa ez eramatea, edo material horrek ez betetzea ezarritako arauzko segurtasun-baldintzak. Izangaiak ez du proba hasteko baimenik izango, eramaten duen materialak ezarritako baldintzak betetzen ez baditu.

Aurretik ezarritako irizpideetako bat gutxienez egiteak esan nahi izango du kasuan lorturiko puntuazioa 0 puntukoa izango dela.

Prozesutik kanporatzea ekarriko du alderdi honek:

Proba gaindituztat jotzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira sorospen/autosorospen eta/edo arriskuaren kudeaketako kasu bien puntuazioa batuta.

2. Proba fisikoa: desnibela + orientazioa (Proba baztertzaila): 10 puntu

Natura-ingurunean desnibel metatua eta orientazioa izango dituen erresistentzia-proba.

Izangaiek 1.500 metroko (gutxi gorabehera) desnibel metatu positiboko ibilbidea egin beharko dute, eta nahitaez kontrol-puntu batzuetatik igaro beharko dute, gutxienez 10 kg-ko motxila bat eramanez (probaren edozein unetan egiaztatu ahal izango da motxilaren pisua). Inguruaren mapa bat emango zaie, nahi duten ibilbidea aukeratu ahal izan dezaten.

Izangaiak lurraren ezaugarrietarako eta probaren eguneko baldintza meteorologikoetarako egokiak diren janzkera eta oinetakoak erabili beharko ditu proba egiteko.

Prozesutik kanporatzea ekarriko dute honako alderdi hauek:

- Proba ez egitea.
- Deskribapenaren arabera ez egitea.
- Proba ez amaitzea.
- Kontrol-puntu guzti-guztietatik ez igarotzea proposatutako ordenan.
- 3 ordu eta 40 minutu baino gehiagotan egitea.

Denbora/Puntuen baremoa

Denbora	Puntuak
2h 30' baino gutxiago	10 puntu
2h 31' - 2h 40'	9,5 puntu
2h 41' - 2h 50'	9 puntu
2h 51' - 3h 00'	8,5 puntu
3h 01' - 3h 10'	8 puntu
3h 11' - 3h 20'	7 puntu
3h 21' - 3h 30'	6 puntu
3h 31' - 3h 40'	5 puntu

Proba gaindituztat jotzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

3. Proba tekniko bertikala - Espeleologia (Proba baztertzalea): 10 puntu

Izangaiak teknika bertikaleko zirkuitu bat osatu beharko du; bertan dauden zailtasunak gaindituta. Zirkuitua partzialki instalatuta egongo da, eta proba hasi aurretik adieraziko zaizkion parametroekin osatu beharko du instalazioa.

Izangai guztiek zirkuitu bera egin beharko dute. Hori guztia eskatutako teknikaz eta segurtasunaz egingo da, ezarritako denboran.

Probaren garapena:

Hautagaiak probarako esleitutako eremuan batuko dira. Bertan, probaren ezaugarrien berri emango zaie izangaiei: zertan datzan, zer denboratan egingo den, zer puntuazio izango dituen, eta probatik baztertzeko edo penalizazioa eragiteko arrazoiak. Azalpen horiek beharrezkoak diren guztietan edo izangaiek eskatzen dituzten guztietan emango dira, proba hasi aurretik edozein motatako zalantza argitzeko.

Lehenengo izangaiak 5 minutu izango ditu progresio bertikaleko material pertsonala behar bezala jartzeko eta doitzeko. Denbora hori igarotakoan, proba hasiko da.

Progresio bertikaleko materiala behar bezala jarri ondoren, izangaiak blokeatzaileak sokan jarriko ditu, eta proba hasteko prest dagoela uste duenean hala adieraziko du; igotzen hasten denean, denbora neurtzen hasiko dira.

Gainditu beharreko zailtasunak, gutxienez, honako hauek izango dira:

- Igoerako korapilo-pasabide 1.
- Desbideragailu 1.
- Pendulu 1.
- Eskudel 1.
- Jaitsierako frakzionamendu 1.
- Igoerako frakzionamendu 1.
- Jaitsierako korapilo-pasabide 1.
- Osatu gabe dagoen zirkuituaren zatia instalatzea.

Zirkuitu osoa instalatuta egongo da, izangaiak osatu beharko duen zatia izan ezik, eta horretarako behar den materiala aukeratuko du.

Igotzeko sistema librea izango da. Nahitaezkoa izango da sabelaldeko blokeatzailea eta eskukoa erabiltzea. Eskuko blokeatzaileak arnesaren mailloira lotuta egon beharko du segurtasun-baga edo ainguratze-soka baten bidez, eta pedal bat edo bi izan ditzake.

Prozesutik kanporatzea ekarriko dute honako alderdi hauek:

- Proba ez egitea.
- Deskribapenaren arabera ez egitea; betiere adierazitako teknikak zehaztutako segurtasun-baldintzak bete behar dira.
- Proba ez amaitzea.

- Kirol-modalitaterako behar den material espezifikoa ez eramatea, edo material horrek ez betetzea ezarritako arauzko segurtasun-baldintzak. Izangaiak ez du proba hasteko baimenik izango, eramaten duen materialak ezarritako baldintzak betetzen ez baditu.

Espeleologiako gutxieneko banakako ekipamenduak nahitaez izan beharko ditu homologatutako elementu hauek, CE marka izango dutenak:

- Kasko behar bezala homologatua.

- Pelbiseko arnesa, Delta motako mailloi batekin edo mailloi edo mosketoi erdizirkular batekin itxia, altzairuzkoa edo zikralezkoa edo fabrika-itxitura duena.

- Ainguratze-sokak, bakoitzean dagokion mosketoi eta guzti. Erabilera honetarako berariaz fabrikatutakoak izango dira, dagokien ziurtagiria izango dutenak, edo gutxienez 9 mm-ko soka dinamikokoa izango da, eta korapilo honekin lotuta: bederatzikoa, zortzi bakunakoa, behi-korapiloa edo erdi arrantzale-korapilo bikoitza edo hirukoitza, behar bezala estutua eta soberako soka batekin, segurtasuna bermatzeko.

- Balazta-palanka duen jaisgailua.

- Balazta-mosketoia.

Ariketan segurtasun-falta larria dakarren eta izangaiaren beraren osotasun fisikoa arriskuan jartzen duen edozein maniobra.

Penalizazioa eragingo dute, eta lortutako azken denbora minutu bat luzatuko dute:

- Izangaiak egingo duen instalazioan mosketoiak ez ixtea.

- Korapiloak behar bezala ez egitea eta horrek segurtasun-arazo bat eragitea.

- Adierazitako zirkuituaren zatia behar bezala ez instalatzea.

Denbora/Puntuaren baremoa

Denbora	Puntuak
12' 00" edo gutxiago	10 puntu
12' 01" - 12' 30"	9,5 puntu
12' 31" - 13' 00"	9 puntu
13' 01" - 13' 30"	8,5 puntu
13' 31" - 14' 00"	8 puntu
14' 01" - 14' 30"	7,5 puntu
14' 31" - 15' 00"	7 puntu
15' 01" - 16' 00"	6,5 puntu
16' 01" - 17' 00"	6 puntu
17' 01" - 18' 30"	5,5 puntu
18' 31" - 20' 00"	5 puntu

Proba gaindituztat jotzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

4. Eskaladako proba teknikoa (Proba baztertzaila): 10 puntu

Natura-ingurunean eta zehaztu beharreko lekuan, proposatutako eskalada-bideetako bat, gutxienez, egitea, ezarritako zuzenketa-irizpideak gaindituz.

Probaren garapena:

Zailtasun (gradu) desberdineko bost eskalada-bide aurkeztuko dira. Izangaiak bi saiakera izango ditu, bere iritziaren arabera antolatuko dituenak, proposatutako eskalada-bideetako bat gutxienez egiteko.

Bi bide gauzatu gero, izangaiak puntuazio handieneko bideari dagozkion puntuak lortuko ditu.

Proba natura-ingurunean egingo da, erresistentzia fisikoko, psikologikoko eta ingurunera egokitzeko trebetasunak bilatzeko.

Bideak hedatzaileez edo tenkagailu kimikoez hornituta egongo dira.

Proba gainditu egingo da izangaiak eskalada-ibilbidea osatutakoan, eta proposatutako zailtasunak eskatutako teknikaz eta segurtasunaz konpondutakoan.

Prozesutik kanporatzea ekarriko dute honako alderdi hauek:

- Beharrezko materiala ez eramatea edo materialak nahitaezko segurtasun-baldintzak ez betetzea.
- Bere burua sokaz oker lotzea.
- Zailtasunez eskalatzea (etengabeko atsedanak, ainguratze artifizialei heltzea, sokatik zintzilikatzea, urratsak ez kateatzea).
- Tarteko babes-aseguruak behar bezala ez jartzea.
- Ariketan segurtasun-falta larria dakarren edozein maniobra.
- Aukeratutako bideetako bat, gutxienez, ez osatzea.

Proposatutako bideak/Puntuen baremoa

1	V/V+ graduko bidea, soka-taldeko lehenengo kide gisa egina	5 puntu
2	6a graduko bidea, soka-taldeko lehenengo kide gisa egina	6 puntu
3	6b graduko bidea, soka-taldeko lehenengo kide gisa egina	7 puntu
4	6c graduko bidea, soka-taldeko lehenengo kide gisa egina	8 puntu
5	7a graduko bidea, soka-taldeko lehenengo kide gisa egina	10 puntu

5. Proba fisikoa: igeriketa, 100 metro. (gai edo ez gai) (proba baztertzaila)

Proba honek ez die punturik gehitzen merezimendu espezifikoei.

Deskribapena: estilo libreko igeriketa, 100 metro. Ibilbidearen hasieran 10 metro apneaz egin behar dira.

Probarako gehieneko denbora: 2 minutu eta 30 segundo.

Prozesutik kanporatzea ekarriko dute honako alderdi hauek:

- Proba ez egitea.
- . Deskribapenaren arabera ez egitea.
- . Proba ez amaitzea.
- . Ezarritako denboraren barruan ez egitea.

23. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 40306 KODEKO LANPOSTUA,
LEHERGAILUAK INDARGABETZEKO UNITATEKOA

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen proba teoriko baztertzailer bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIK:

1. 051 jarraibidea – Kalitatea Kudeatzeko Sistema.
2. 078 jarraibidea – Kudeaketa Aurreratuaren eta erabakiak hartzearen eredia.
3. 080 jarraibidea – Ertzaintzaren gobernantza-egitura eta kudeaketa-foroak.
4. 082 jarraibidea – Ertzaintzaren ekintza zuzentzaileak, prebentziozkoak eta hobekuntzakoak.
5. 130/2017 ED, otsailaren 24koa, Lehergailuen Erregelamendua onartzen duena.
6. 989/2015 ED, urriaren 30ekoa, piroteknia-gaien eta kartutxoaren erregelamendua onartzen duena.
7. 1836/1999 ED, abenduaren 3koa, Instalazio Nuklear eta Erradioaktiboaren Erregelamendua onartzen duena.
8. 1564/2010 ED, azaroaren 19koa, arrisku erradiologikoen aurrean babes zibila planifikatzeko oinarritzko jarraibidea onartzen duena.
9. 783/2011 ED, uztailaren 6koa, erradiazio ionizatzaileen aurkako osasun-babesari buruzko erregelamendua onartzen duena.
10. PCI/1381/2018 Agindua, abenduaren 18koa, «Re-Lab» Alerta Biologikoko Laborategien Sarea arautzen duena.
11. IS-28 jarraibidea, 2010eko irailaren 22koa, CNSrena, bigarren eta hirugarren kategoriako instalazio erradioaktiboek bete behar dituzten funtzionamendu-zehaztapen teknikoari buruzkoa.
12. Larrialdietako plan berezia, EAEko arrisku erradiologikoari aurre egiteko.
13. Segurtasun Nuklearreko Kontseilua – 5.6 segurtasun-gida.
14. Prozesuaren 004 fitxa – Lehergailuak Indargabetzeko Unitatearena.
15. 012 Zerbitzu-agindua – LIUekin jarduteko protokoloa.
16. 003 Zerbitzu-agindua – Arrisku erradiologikoetarako jarduera-protokoloa.
17. LIUren jarraibide operatiboak (14).
18. Lehergailuak Indargabetzeko Unitatea-NRBQ- Lurpea – Funtzionalitateen eskuliburua.

24.1 ERANSKINA

BABES ETA SEGURTASUNEN UNITATEKO 40803 KODEDUN
LANPOSTUARI DAGOKION BERARIAZKO PROBA

Proba baztertzailer bat egin beharko da, hurrengo gai-zerrendari buruzko ezagutzen proba teorikoa. Gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira, eta 20 puntu edo gehiago lortu beharko dira gaitzeko.

GAI-ZERRENDA:

- 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa. Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea.
- Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala. 6/2021 Dekretua, 2021eko urtarrilaren 19koa.
- 4/2012 Dekretua, urtarrilaren 17koa, Ertzaintzako langileen 2011-2013 urteetarako lan-baldintzak araupetzeko akordioa onartzen duena.
- 006 zenbakiko jarraibidea: iraganbide publikoetan biltzeko eskubidea eta manifestatzeko eskubidea egikaritzea babestea.
- 008 zenbakiko jarraibidea: identifikazioak egitea.
- 021 jarraibidea: Ertzaintzako kideek su-armak edukitzearekin eta erabiltzearekin lotutako alderdiak.
- 029 jarraibidea: atxiloketa.
- 034 jarraibidea: bonba-mehatxu baten aurreko irizpideak eta jarduketak.
- 077 jarraibidea: Ertzaintzak gorroto-delituen aurrean jarduteko prozedura.
- 001 zenbakiko zirkularra, Berrik. 03, Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Ataleko Burutzarena, Babes eta Segurtasuneko Unitatearen Irizpide Operatiboak.
- 011 zirkularra, Berrik. 0, Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Ataleko Burutzarena: EI/GI biktimei eskolta esleitzeko prozedura.
- Komunikazioei buruzko 004 agindu operatiboa, 2013. urtea, Berrik. 9, Babes Unitatearenak.
- 044 zerbitzu-agindua, Berrik. 3. Ertzaintzaren Buruzagitza, EI/GIren biktimak babestea.
- zerbitzu-agindua 038, Berrik. 03, Ertzaintzaren Buruzagitza, Mehatxatutako Pertsonak Babesteko Zerbitzua
- 001 agindu operatiboa, Ber. 01, Berroziko Polizia Zentroaren barne-agindua. Erakundeen Segurtasunerako Buruzagitza Nagusia.

24.2 ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 40804 ETA 40805 KODEETAKO
LANPOSTUAK, BABES ETA SEGURTASUN UNITATEKOAK

Bi proba baztertzailer egingo dira. Lehenengo proba teorikoa izango da; bigarrena, ordea, gaitasun fisikokoa eta trebetasun teknikoetakoa.

LEHENENGO PROBA: PROBA TEORIKOA

Hurrengo gai-zerrendei buruzko ezagutza-proba teorikoetan gehienez ere 20 puntu lortu ahalko dira. Proba gairiditzeko, 10 puntu edo gehiago lortu beharko dira.

40804 LANPOSTURAKO GAI-ZERRENDA

- 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearena.
- 6/2021 Dekretua, urtarrilaren 19koa, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.
- 4/2012 Dekretua, urtarrilaren 17koa, Ertzaintzako langileen, 2011., 2012. eta 2013. urteetarako, lan-baldintzak araupetzeko akordioa onartzen duena.
006. jarraibidea: ibilgune publikoetan biltzeko eta manifestatzeko eskubideak erabiltzeko babesari buruzkoa.
008. jarraibidea: identifikazioak egitea.
021. jarraibidea: Ertzaintzako kideek suzko armak edukitzearekin eta erabiltzearekin lotutako alderdiak.
029. jarraibidea: atxiloketa.
034. jarraibidea: bomba-mehatxu baten aurreko irizpideak eta jarduketak.
077. jarraibidea: Ertzaintzak gorroto-delituen aurrean jarduteko prozedura.
001. zirkularra, 03. berrik., Herritarren Segurtasunaren eta Ekintzetarako Baliabideen Alorreko Burutzarena: Babes eta Segurtasun Unitatearen Irizpide Operatiboak.
011. zirkularra, 0. berrik., Herritarren Segurtasunaren eta Ekintzetarako Baliabideen Alorreko Burutzarena: EI/GI biktimei eskolta esleitzeko prozedura.
004. agindu operatiboa, komunikazioei buruzkoa, 2013. urtekoa, 9. berrik., Babes Unitatearena.
044. zerbitzu-agindua, 3. berrik., Ertzaintzaren Burutzarena: EI/GIren biktimak babestea.
038. zerbitzu-agindua, 3. berrik., Ertzaintzaren Burutzarena: mehatxatutako pertsonak babesteko zerbitzua.
001. agindu operatiboa, 01. berrik., Berroziko Polizia Zentroaren barne-agindua, Erakundeen Segurtasunerako Burutza Nagusiarena,

40805 LANPOSTURAKO GAI-ZERRENDA

1. 006. jarraibidea: ibilgune publikoetan biltzeko eta manifestatzeko eskubideak erabiltzeko babesari buruzkoa.
2. 008. jarraibidea: identifikazioak egitea.
3. 021. jarraibidea: Ertzaintzako kideek suzko armak edukitzearekin eta erabiltzearekin lotutako alderdiak.
4. 029. jarraibidea: atxiloketa.
5. 034. jarraibidea: bonba-mehatxu baten aurreko irizpideak eta jarduketak.
6. 001. zirkularra, 03. berrik., Herritarren Segurtasunaren eta Ekintzetarako Baliabideen Alorreko Burutzarena: Babes eta Segurtasun Unitatearen Irizpide Operatiboak.
7. 004. agindu operatiboa, komunikazioei buruzkoa, 2013. urtekoa, 9. berrik., Babes Unitatearena.
8. 038. zerbitzu-agindua, 3. berrik., Ertzaintzaren Burutzarena: mehatxatutako pertsonak babesteko zerbitzua.
9. 001. agindu operatiboa, 01. berrik., Berroziko Polizia Zentroaren barne-agindua, Erakundeen Segurtasunerako Burutza Nagusiarena,

BIGARREN PROBA: GAITASUN FISIKOA ETA TREBETASUN TEKNIKOAK

Bi lanpostuetarako proba komuna da.

Nahitaezkoa eta baztertzaila da. Proba honen kalifikazioa gehienez 40 puntukoa izango da, ariketa eta test bakoitzean lortutako kalifikazioak batuta.

Gaitasun fisikoaren probaren kalifikazioa 28 puntukoa izango da gehienez, eta indartze-testa (gehienez 23,40 puntu) eta erresistentzia-testa (gehienez 4,60 puntu) izango ditu, biak nahitaezkoak eta baztertzailak. Gainditzeko, ariketa bakoitzean adierazitako gutxienerako puntuazioa egin beharko da. Halaber, nahitaezkoa izango da indartze-testean gutxienez 11,70 puntu lortzea, eta erresistentzia-testean gutxienez, 2,30 puntu.

Nahitaezkoa eta baztertzaila den trebetasun teknikoaren probaren kalifikazioa 12 puntukoa izango da gehienez, eta gainditzeko gutxienez 6 puntu lortu beharko dira. Tiro-ariketa bat egin beharko da.

Gaitasun fisikoko probak ariketa hauek izango ditu:

INDARTZE-TESTA

Indartze-testean 0tik 23,40 puntura bitartean emango dira, eta zazpi ariketa izango ditu. Ariketa bakoitzak 30 segundo iraungo ditu (bankuko pressak ez du gehieneko denborarik izango), eta ariketen artean 30 segundo izango dituzte errekuuperatzeko. Ahalik eta errepikapen gehien egin beharko dira.

Azken puntuazioa ariketa bakoitzean lortutako partzialen batura izango da. Egin beharreko ariketak (gauzatzea eta ebaluazioa).

GIZONEZKOAK

ORDENA	ARIKETA	GEHIENEO PUNTUAZIOA
1	BANKUKO PRESSA	4,70
2	AURREKO-ALBOKO MUSKULATURA ABDOMINALA	1,55
3	BESOEN TRAKZIOA BARRA FINKOAN	4,70
4	BEHEKO MUSKULATURA ABDOMINALA	1,55
5	BESOEN FLEXIOA AHOZ BEHERA ETZANDA	4,70
6	ESTENTSIO OROKORRA	3,10
7	TRIZEPS FRANTSESA	3,10

GUZTIRA	23,40 PUNTU
---------	-------------

EMAKUMEZKOAK

ORDENA	ARIKETA	GEHIENEO PUNTUAZIOA
1	BANKUKO PRESSA	4,70
2	AURREKO-ALBOKO MUSKULATURA ABDOMINALA	1,55
3	BESOEN TRAKZIOA BARRA FINKOAN	4,70
4	BEHEKO MUSKULATURA ABDOMINALA	1,55
5	TRIZEPS FRANTSESA	3,10
6	ESTENTSIO OROKORRA	3,10
7	BESOEN FLEXIOA BARRA FINKOAN	4,70

GUZTIRA	23,40 PUNTU
---------	-------------

GIZONEZKOAK


BANKUKO PRESSA

Deskribapena: banku baten gainean ahoz gora jarrita, hankak tolestuta, oinak zoruan finkatuta eta eskuak sorbaldak baino pixka bat zabalago (erpuareen ermamia proba egiteko erabiltzen den barrako marra gorriak ukitzera iritsiko da), besoen flexio sakona bularra barrarekin ukitu arte, eta, ondoren, estentsio osoa, besoa blokeatu arte altxaldi bakoitzean.

Ariketa hasi ondoren, ezin izango da gelditu, ez eskuak hasierako heldulekutik mugitu, ez oinak zorutik altxatu, ez eta gorputzarekin konpentsazio-mugimendurik egin ere. Baldintza horietako bat betetzen ez bada, proba geldiarazi eta ordura arte zuzen egindako errepikapenak idatziko dira.

Gizonezkoek 40 kilo altxatuko dituzte.

Neurketa: ez dira zenbatuko behar bezala egin ez diren altxaldiak (flexio sakona bularra ukitu arte eta besoen estentsio osoa).



ERREPIKAPENAK	BALIOA PUNTUTAN
21 baino gutxiago	0
22 - 29	0,80
30 - 35	1,20
36 - 39	1,60
40 - 41	2,35
42 - 43	3,10
44	3,85
45	4,70

AURREKO-ALBOKO MUSKULATURA ABDOMINALA

Aurreko-alboko muskulatura abdominalaren indar-erresistentzia.

Ahoz gora jarrita, hankak elkarrekin; eta eskuak elkarrekin gurutzatuta garondoan eta oinak elkarrekin. Aldaka eta belauna 90°-ko flexioan. Flexioa egingo da, enborra ezkerretara biratuz, eskuineko ukondoak ezkerreko belauna ukituz, hasierako posiziora itzuliz eta ezkerreko ukondoak eskuineko belauna ukituz. Sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu, ariketa egiteko ezarritako denboran.



ERREPIKAPENAK	BALIOA PUNTUTAN
25 baino gutxiago	0
25	0,15
26	0,30
27	0,45
28	0,60
29	0,75
30	0,90
31	1,05
32	1,20
33	1,35
33 baino gehiago	1,55

BESOEN TRAKZIOA BARRA FINKOAN

Bizkarraldeko giharren eta goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.

Barra finko batetik zintzilik, ahoz gora eusten eta eskuak sorbalden zabaleran, izangaiak besoak flexionatuko ditu eta gorputza altxatuko du, kokotsarekin barra gainditzea lortu arte. Ondoren, gorputza hasierako posizioraino jaitsiko da (besoak estentsioan eta hankak gurutzatuta eta 90° inguruko angeluan flexionatuta), eta sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatuko da.

Ez da kulunkarik onartuko. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren aurrean, barraren bertikaletik 35 cm-ra dauden bi euskarriren bidez eutsita eta zorutik 1,50 m-ko altueran.



ERREPIKAPENAK	BALIOA PUNTUTAN
9 baino gutxiago	0
9	0,80
10	1,20
11	1,60
12	1,95
13	2,35
14	3,10
15	3,85
15 baino gehiago	4,70

BEHEKO MUSKULATURA ABDOMINALA

Beheko muskulatura abdominalaren indar-erresistentzia.

Ahoz gora etzanda, hankak elkarrekin eta eskuak garondoan gurutzatuta, enborra zoruan finkatuta, hankak luzatuta (belaunen estentsio osoa eta oinazpia flexionatuta), zorua ukitu gabe 20 cm-ko altueran. Hankak txandaka altxatuko ditugu, eta sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatuko dugu.

Ez da onartuko beheko gorputz-adarra zorurekin kontaktuan egotea. Gorputz-adarra zorutik 20 cm-ra arte goratu beharko da. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren oinen aurrean, 35 cm-ra dauden bi euskarriren bidez eutsita eta zorutik 20 cm-ko altueran.



ERREPIKAPENAK	BALIOA PUNTUTAN
60 baino gutxiago	0
61 - 70	0,35
71 - 80	0,75
81 - 90	1,15
90 baino gehiago	1,55

BESOEN FLEXIOA AHOZ BEHERA ETZANDA

Goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.

Ahoz behera etzanda, ahurrak haien artean sorbalden adinako zabalerarekin zoruan finkatuta. Oinak elkarrekin eta hankak eta enborrak estentsio osoz jarrita. Izangaiak besoak sakon flexionatu beharko ditu, zorua kokotsarekin ukitu arte. Mugimendua amaitutakoan, izangaiak ukondoaren estentsio osoa egin beharko du. Sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu, ariketak irauten duen bitartean, 30 sg, hain zuzen ere.



ERREPIKAPENAK	BALIOA PUNTUTAN
27 baino gutxiago	0
27	0,35
28	0,50
29	0,65
30	0,80
31	0,95
32	1,05
33	1,20
34	1,35
35	1,60
36	2,35
37	2,70
38	3,10
39	3,45
40	3,85
40 Baino Gehiago	4,70

ESTENTSIO OROKORREKO PROBA

Muskulatura hedatzailearen indar-erresistentzia.

Hasieran kokoriko posizioan, hankak tolestuta. Besoak enberraren aurrean eta hanken artean. Izangaiak jauzi bat egin beharko du, besoak eta hankak airean luzatuz. Jauziak irauten duen bitartean, oinek zoruko ahur baten altuera gainditu beharko dute. Izangaiak sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu beharko du, ariketak irauten duen bitartean, 30 sg, hain zuzen ere.



ERREPIKAPENAK	BALIOA PUNTUTAN
15 baino gutxiago	0
15	0,40
16	0,70
17	1,00
18	1,30
19	1,60
20	1,90
21	2,10
22	2,40
23	2,70
23 \$	3,10

TRIZEPS FRANTSESA

Trizepsaren giharren indar hedatzailearen erresistentzia neurtzea.

Ahoz gora jarrita, hankak elkartuta, orpoak 30 cm-ko garaierako banku suediar batean jarrita, besoak luzatuta eta 42 cm-ko garaierako beste banku batean jarrita, sorbalden zabaleraren arabera, besoen flexioa egingo da, besoen eta besurrearen artean 90°-ko angelua lortu arte. Izangaiak sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu behar du, ariketa egiteko ezarritako denboran (30 segundo).



ERREPIKAPENAK	BALIOA PUNTUTAN
27 baino gutxiago	0
27	0,20
28	0,40
29	0,60
30	0,80
31	1,00
32	1,20
33	1,40
34	1,60
35	1,80
36	2,00
37	2,20
38	2,40
39	2,60
40	2,80
40 baino gehiago	3,10

EMAKUMEZKOAK


BANKUKO PRESSA

Deskribapena: banku baten gainean ahoz gora jarrita, hankak tolestuta, oinak lurrian finkatuta eta eskuak sorbaldak baino pixka bat zabalago (erpuarearen ermamia proba egiteko erabiltzen den barrako marra gorriak ukitzera iritsiko da), besoen flexio sakona bularra barrarekin ukitu arte, eta, ondoren, estentsio osoa, besoa blokeatu arte altxaldi bakoitzean.

Ariketa hasi ondoren, ezin izango da gelditu, ez eskuak hasierako heldulekutik mugitu, ez oinak zorutik altxatu, ez eta gorputzarekin konpentsazio-mugimendurik egin ere. Baldintza horietako bat betetzen ez bada, proba geldiarazi eta ordura arte zuzen egindako errepikapenak idatziko dira.

Emakumezkoek 30 kilo altxatuko dituzte.

Neurketa: ez dira zenbatuko behar bezala egin ez diren altxaldiak (flexio sakona bularra ukitu arte eta besoen estentsio osoa).





ERREPIKAPENAK	BALIOA PUNTUTAN
11 baino gutxiago	0
12 - 19	0,80
20 - 25	1,20
26 - 29	1,60
30 - 31	2,35
32 - 33	3,10
34	3,85
35	4,70

AURREKO-ALBOKO MUSKULATURA ABDOMINALA

Aurreko-alboko muskulatura abdominalaren indar-erresistentzia.

Ahoz gora jarrita, hankak elkarrekin; eta eskuak elkarrekin gurutzatuta garondoan eta oinak elkarrekin. Aldaka eta belauna 90°-ko flexioan. Flexioa egingo da, enborra ezkerretara biratuz, eskuineko ukondoak ezkerreko belauna ukituz, hasierako posiziora itzuliz eta ezkerreko ukondoak eskuineko belauna ukituz. Sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu, ariketa egiteko ezarritako denboran (30 segundo).



ERREPIKAPENAK	BALIOA PUNTUTAN
23 baino gutxiago	0
23	0,15
24	0,30
25	0,45
26	0,60
27	0,75
28	0,90
29	1,05
30	1,20
31	1,35
31 baino gehiago	1,55

BESOEN FLEXIOA AHOZ BEHERA ETZANDA

Goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.

Ahoz behera etzanda, ahurrak haien artean sorbalden adinako zabalerarekin zoruan finkatuta. Belaunak elkarrekin eta zorua gainean jarrita, eta hankak eta enborra estentsio osoan jarrita. Izangaiak besoak sakon flexionatu beharko ditu, zorua kokotsarekin ukitu arte. Mugimendua amaitutakoan, izangaiak ukondoaren estentsio osoa egin beharko du. Sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu, ariketak irauten duen bitartean, 30 sg, hain zuzen ere.



ERREPIKAPENAK	BALIOA PUNTUTAN
27 baino gutxiago	0
27	0,35
28	0,50
29	0,65
30	0,80
31	0,95
32	1,05
33	1,20
34	1,35
35	1,60
36	2,35
37	2,70
38	3,10
39	3,45
40	3,85
40 baino gehiago	4,70

BEHEKO MUSKULATURA ABDOMINALA

Beheko muskulatura abdominalaren indar-erresistentzia.

Ahoz gora etzanda, hankak elkarrekin eta eskuak garondoan gurutzatuta, enborra zoruan finkatuta, hankak luzatuta (belaunen erabateko estentsioa eta oinazpia flexionatuta), lurra ukitu gabe 20 cm-ko altueran. Hankak txandaka altxatuko ditugu, eta sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatuko dugu, ariketak irauten duen bitartean, 30 sg, hain zuzen ere.

Ez da onartuko beheko gorputz-adarra zorurekin kontaktuan egotea. Gorputz-adarra zorutik 20 cm-ra arte goratu beharko da. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren oinen aurrean, 35 cm-ra dauden bi euskarriren bidez eutsita eta zorutik 20 cm-ko altueran.



ERREPIKAPENAK	BALIOA PUNTUTAN
56 baino gutxiago	0
DE 56 - 64	0,35
DE 65 - 74	0,75
DE 75 - 84	1,15
85 baino gehiago	1,55

TRIZEPS FRANTSESA

Trizepsaren giharren indar hedatzailearen erresistentzia neurtzea.

Ahoz gora jarrita, hankak elkartuta, orpoak zoruan jarrita, besoak luzatuta eta 42 cm-ko garaierako banku batean jarrita, sorbalden zabalaren arabera, besoan flexioa egingo da, besoaren eta besaurrearen artean 90º-ko angelua lortu arte. Izangaiak sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu behar du, ariketa egiteko ezarritako denboran (30 segundo).



ERREPIKAPENAK	BALIOA PUNTUTAN
27 baino gutxiago	0
27	0,20
28	0,40
29	0,60
30	0,80
31	1,00
32	1,20
33	1,40
34	1,60
35	1,80
36	2,00
37	2,20
38	2,40
39	2,60
40	2,80
40 baino gehiago	3,10

ESTENTSIO OROKORRA

Muskulatura hedatzailearen indar-erresistentzia.

Hasieran kokoriko posizioan, hankak tolestuta. Besoak enberraren aurrean eta hanken artean. Izangaiak jauzi bat egin beharko du, besoak eta hankak airean luzatuz. Jauziak irauten duen bitartean, oinek zoruko ahur baten altuera gainditu beharko dute. Izangaiak sekuentzia hori ahalik eta gehien errepikatu beharko du, ariketak egiteko ezarritako denboran, 30 sg, hain zuzen ere.



ERREPIKAPENAK	BALIOA PUNTUTAN
14 baino gutxiago	0
14	0,40
15	0,70
16	1,00
17	1,30
18	1,60
19	1,90
20	2,10
21	2,40
22	2,70
22 baino gehiago	3,10


BESOEN FLEXIOA BARRA FINKOAN

Goiko gorputz-adarretako giharren indar-erresistentzia.

Izangaia bankura igoko da eta barra finko bati helduko dio, ahoz behera eusten eta eskuak sorbalden zabaleran, izangaiak besoak flexionatuko ditu osorik eta gorputza altxatuko du, kokotsarekin barra gainditzea lortu arte, ukitu gabe. Oinak bankuarekin kontaktuan egoteari uzten diotenetik aurrera, posizio horretan egon beharko du ahalik eta denbora luzeenean. Proba amaituko da kokotsa barra horizontalaren mailatik behera jaisten denean.

Ez da kulunkarik onartuko. Horretarako, listoi bat jarriko da izangaiaren aurrean, barraren bertikaletik 35 cm-ra dauden bi euskarriren bidez eutsita eta lurretik 1,50 cm-ko altueran.

Ezingo da kokotsa barrarekin ukitu.



POSIZIOARI EUSTEKO DENBORA	BALIOA PUNTUTAN
25 sg baino gutxiago	0
25 sg. - 35 sg.	0,40
36 sg. - 45 sg.	0,80
46 sg. - 55 sg.	1,20
56 sg. - 1 m. 05 sg.	1,60
1 m. 06 sg. - 1 m. 15 sg.	1,95
1 m. 16 sg. - 1 m. 25 sg.	2,35
1 m. 26 sg. - 1 m. 35 sg.	2,70
1 m. 36 sg. - 1 m. 45 sg.	3,10
1 m. 46 sg. - 1 m. 55 sg.	3,85
1 m. 55 SG baino gehiago	4,70

ERRESISTENTZIA-TESTA

Erresistentzia-testaren balorazioan 0tik 4,60 puntura emango dira.

Course Navette edo Leger-Lambert-en testa.

Probarako jarraibideak:

Joan-etorriko ibilbide batean 20 m-ko distantzian, ahalik eta denbora luzeenean korrika egitean datza. Pixkanaka handitzen doan abiaduran, minutu bakoitzeko gutxi gorabehera (1 minutu). Ibilbide bakoitzeko abiadura soinu-zinta edo kasete baten bidez erregulatuko da, eta soinu bat igorriko du tarte erregularretan.

Joan-etorriko ibilbideak egingo dira, harik eta oposizioak zintak adierazten duen unean lerroa zapaldu ezin duen arte.


Izangaiak irteera-marraren atzetik jarri behar dira, eta haien artean metro bateko tarte utzi behar da. Kasetea martxan jarri ondoren, irteera-seinalea entzutean, aurreko marra zapaldu arte mugitu behar dira, hurrengo seinaleak jotzen duen unean edo lehenago. Marra hori 20 m-ra dago. Ezinbestekoa izango da soinu-zintak markatutako erritmoari jarraitzea, eta ezin izango da hurrengo ibilbidea egitera irten seinalea entzun arte.

Gutxienez oin batek marra zapaldu beharko du ibilbide bakoitzean.

Izangai bakoitza bere karrera-marrari eusten saiatuko da, beste izangaiei trabarik egin gabe.

Hautagairen batek ez badu marra zapaltzen soinu-zintak adierazitako denboran, alde aurretik abisatuko zaio, eta bigarren abisuren bat gertatuz gero, kanporatu egin ahal izango da.

Izangaiak behar bezala bete duen azken palierra idatziko da, alderdi hauek kontuan hartuta: - soinu-zintak, marrara iristeko unea markatzen duten tarte erregularretako seinaleez gain, tarte desberdinetan adieraziko du bete den palierra; - utzi aurretik izangaiak lortu duen azken palierra izango da probaren emaitza.



GIZONEZKOAK

BETETAKO ALDIA	BALIOA PUNTUTAN
9.00 baino gutxiago	0.00
9.00	1,00
9.50	1,60
10.00	2,20
10.50	2,80
11.00	3,40
11.50	4,00
12.00	4,60

EMAKUMEZKOAK

BETETAKO ALDIA	BALIOA PUNTUTAN
8.00 baino gutxiago	0.00
8.00	1,00
8.50	1,60
9.00	2,20
9.50	2,80
10.00	3,40
10.50	4,00
11.00	4,60

TREBETASUN TEKNIKOKO PROBA

Bi lanpostuetarako proba komuna da, nahitaezkoa eta baztertzaila. Proba honen kalifikazioa gehienez 12 puntukoa izango da, eta gainditzeko gutxienez 4 puntu lortu beharko dira. Tiro-ariketa bat egingo da, non bi jomugaren kontrako eraginkortasuna eta ariketa egiteko azkartasuna baloratuko diren.

Jarraian, pistolarekin tiro egiteko trebetasun teknikoko proba deskribatzen da, bai eta haren puntuazio-baremoak ere. Proba hori arauzko hornidura-armaz egingo da.

Gauzatzea.

Tiratzailaren irizpidearen arabera, 3 kargagailutan banatutako 30 kartutxorekin abiatuko da. Errekamaran munizio-kartutxo bat eta katua ekintza bikoitzean dituen armarekin hasiko da. Ariketan zehar, tiratzaileak bere irizpidearen arabera aldatuko du kargagailua.

A jomuga.

Ariketa 25 metroko distantzian hasiko da. Abiapuntuko posizioa zutik izango da, eskuak gorputzaren aurrean elkartuta eta arma zorroan, eta, lehen adierazi bezala, errekamaran munizio-kartutxo bat duela. Agintzen diotenean, tiratzaileak lurlean etzandako posizioa hartuko du, 2 tiro egiteko.

Ondoren, 20 metroko marraraino joango da, belauna lurlean deritzon posizioa hartuko du, eta 2 tiro egingo ditu.

Aurrera egingo du 15 metroko marraraino berriz, eta berriz ere 2 tiro egingo ditu zutik jarrita. Distantzia berean, lurlean etzandako posizioa hartuko du eta 2 tiro egingo ditu. Posizioari eutsiz, lurlean eskuinera biratuko da erabat, eta 2 tiro egingo ditu. Ezkerretara bira osoa egingo du berriro, eta 2 tiro egingo ditu.

Berriz ere 10 metroko marraraino hurbilduko da, 2 tiro egiteko zutik, 2 tiro belauniko eta 2 tiro posizio erdiabdominalean.

B jomuga.

Azkenik, 7 metroko distantziaraino egingo da aurrera, eta 12 tiro egingo dira zutik, "B" jomugaren aurka.

Puntuazioa eta penalizazioak:

- Proba egiteko denbora. Puntuazioen balioaren % 100 lortzeko, ez dira 90 segundo baino gehiago erabili behar. Hortik gorako 10 segundoko, 0,5 puntu kenduko dira. Ariketa 110 segundotan baino gehiago amaitzen badu tiratzaileak, baliogabetzat joko da.

- 0,5 puntuko penalizazioa, ez dagokion jomugara egindako tiro bakoitzeko.

- Izangai bakoitzak gehienez bi aldiz egin «dezake» ariketa, eta lortutako puntuaziorik onena hartuko da baliozkotzat.

A jomuga (18 tiro).

«A» gisa markatutako eremura iritsi behar dira inpaktuak.

Puntuazioa eranskin honen amaierako laukian zehaztuta dator.

Ez dago penalizaziorik eremutik kanpo egindako inpaktuengatik.

B jomuga (12 tiro).

0,15 puntu, «B» gisa markatutako eremura iristen den inpaktu bakoitzeko.

Ez dago penalizaziorik eremutik kanpo egindako inpaktuengatik.

Penalizazioak.

Segurtasunaren akats arinak. Tiratzailearen segurtasunerako berehalako arriskurik sorrarazten ez dutenak dira. Halako bat eginez gero, ohartarazpen bat egingo da. Hiru akats arin metatuz gero, ariketa baliogabea izango da:

- Aurreratze-mugimenduetan, arma eskuan mantenduko da, jomuga-eremurantz zuzenduta eta lurrarekiko paraleloan; segurtasun-baldintza hori ez bada betetzen, 1. ohartarazpena egingo da.

- Aurreratze-mugimendu bakoitzean, posizio bakoitzetik irten baino lehen aktibatu egin behar da segurtagailua ekintza bikoitzera edo aseguratu posiziora; segurtasun-baldintza hori ez bada betetzen, 2. ohartarazpena egingo da.

- Posizioak aldatzean, tiratzaileak arma jomugarantz zuzentzen jarraitu behar du; segurtasun-baldintza hori ez bada betetzen, 3. ohartarazpena egingo da.

- Segurtasunaren akats larriak. Epaille instruktoreek balizko istripu-arriskua egon dela uste dutenean gertatuko dira, adibidez, ustekabeko edo nahi gabeko tiro bat ariketa egin bitartean. Halakoetan, ariketa baliogabetzat joko da. Izangaiak azken aukera bat izango du ariketa teknikoa egiteko.

Garapena.

- Tiratzaile batek huts egiten badu tiro-posizioak egitean, bai eta ezarritako tiro-distantziak egitean ere, ariketa errepikatu beharko du, eta lehenengo proba egindakotzat hartuko da, baina baliogabea.

- Posizio batean tiro bat gehiago egiten badu, horren berri emango litzateke eta idatziz jasoko litzateke, baina tiratzaileak ariketa egiten jarraituko luke, eta kasu horretan azken emaitzatik 0,5 puntu kenduko litzaioke.

- Ariketa egiten ari den bitartean, armak huts egiten badu edo geldiarazi egiten bada, kronometroa gelditu egingo da, eta berriz ere martxan jarri ahal izango da, tiratzaileak arazoa konpondu eta hurrengo tiroa egiten duenean.

- Munizioak eragindako arazoengatik kartutxo batek ez badu kolpekatzen, inpaktua tiratzailearen aldekoa dela idatziko da.

Tirataile bakoitzak behar duena.

- Plastikozko giza siluetako 2 jomuga (A jomuga eta B jomuga); eta horietako bakoitzean dagozkien inpaktu-eremuak markatzen dira. Argazkia eta jomugaren neurriak erantsi dira.

- 9 mm-ko kalibreko munizioa, blindatua, eta 30 kartutxo.

- Koltxoneta bat, posizio erdiabdominala hartu behar denerako.

- 2 koltxoneta etzanda egoteko posizioetarako.

Ariketan erabiliko diren pistola zorroa zein kargagailu zorroak agenteak duen zuzkidurakoak izango dira.

A jomugako puntuazio laukia.

INPAKTUAK	PUNTUAZIOA
1	0,55
2	1,10
3	1,65
4	2,20
5	2,75
6	3,30
7	3,85
8	4,40
9	4,95
10	5,50
11	6,05
12	6,60
13	7,20
14	7,80
5	8,40
16	9,00
17	9,60
18	10,20

25. ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 70112 KODEKO LANPOSTUA, KANPO LANKIDETZARAKO BURUTZAKOA

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen proba teoriko baztertzaille bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIAK:

1. Bloisko Hitzarmena.
2. CCPAren funtzionamendu-arau bereziak.
3. Siena. Siena Code.
4. Hendaiaiko CCPArekiko komunikazio-protokoloa.
5. Schengen espazioa eta lankidetzeta.
6. Sirenea.
7. Prüm konbentzioa.

26.1 ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 70403-70404-70405-70406 KODEKO
LANPOSTUAK, KOORDINAZIO ETA LANKIDETZA UNITATEKOAK

Jarraian adierazitako gaiet buruzko ezagutzen proba teoriko baztertzailer bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gaitzeko.

GAIAK:

1. Agindua, 2021eko azaroaren 18koa, lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, Ertzaintzaren egitura onartzen duena.
2. 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duena.
3. 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarren aldatzekoa.
4. 2/1986 Lege Organikoa, martxoaren 13koa, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzkoa (5etik 8ra eta azken xedapenetako 1.a)
5. Abenduaren 23ko 19/1994 Lege Organikoa, auzi kriminaletan lekukoak eta perituak babesteari buruzkoa.
6. 1774/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa, adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren erregelamendua onartzen duena.
7. 3/2018 Legea, ekainaren 11koa, Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legea aldatzen duena, Europako ikerketa-agindua arautzeko.
8. 20. jarraibidea. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua.
9. 45. jarraibidea: nazioarteko erregu-eskaera.
10. 00 zerbitzu-agindua. Ikerketa/inteligentzia, antolaketa eta funtzioak.
11. 17. zerbitzu-agindua. Justizia-administrazioarekiko elkarrizketa eta harremanak.
12. 30. zerbitzu-agindua. Delituaren biktimarentzako arreta.
13. 48. zerbitzu-agindua. Polizia-jarduna adingabeekin.
14. Ikerlana irekitzeko eta konfiguratzeko abenduaren 1eko agindu operatiboa.
15. Ikerketaren dokumentu-euskarria – ikerlana – ikerketak erregistratzeko erabiltzeko prozedura.
16. Ertzaintzaren eta CITCOren arteko koordinazioari eta elkarrizketari buruzko prozedura.
17. 3. agindu operatiboa. Eginbideak izapidetzeko, gainbegiratzeko eta izapidetzeko eskumena.
18. 78. jarraibidea. Ertzaintzaren kudeaketa aurreratuaren eredia, 2. Ertzaintzaren eredia, 3. Ertzaintzaren misioa, 4. Ertzaintzaren balioen adierazpena eta 5. Ikusmenaren adierazpena eranskinak.
19. 80. jarraibidea. Ertzaintzaren gobernantza-egitura eta kudeaketa-foroak, 6. puntua. Talde funtzionalak.

26.2 ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 70408, 70409, 70410, 70412 eta 70413 KODEKO LANPOSTUAK

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen proba teoriko baztertzaille bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIK:

1. 037 jarraibidea: atzerriko herrialdeek sortutako SIS seinalamenduak.
2. 038 jarraibidea: SIS/BDSN seinalamenduak (Estatuan).
3. 071 jarraibidea: Ertzaintzaren eta beste estatu kide batzuen arteko informazio- eta inteligentzia-trukea (Suediako ekimena).
4. 078 jarraibidea: Ertzaintzaren Kudeaketa Aurreratuaren Eredua.
5. 080 jarraibidea: Ertzaintzaren gobernantza-egitura eta kudeaketa-foroak.
6. 010 zerbitzu-agindua: abisuen aurreko koordinazio operatiboa, kategorien arabera, seinalamenduak/errekisitoriak.
7. 001. jarraibide operatiboa: agindu judizialen kudeaketa.

26.3 ERANSKINA

BERARIAZKO PROBA: 70411 KODEKO LANPOSTUA,
KOORDINAZIO ETA LANKIDETZA UNITATEKOA

Jarraian adierazitako gaiei buruzko ezagutzen proba teoriko baztertzaille bat egin beharko da, zeinetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango diren eta nahitaezkoa izango den 20 puntu edo gehiago lortzea, berori gainditzeko.

GAIAK:

1. 037 jarraibidea: Atzerriko herrialdeek sortutako SIS seinalamenduak.
2. 038 jarraibidea: SIS/BDSN seinalamenduak (Estatu mailan).
3. 071 jarraibidea: Ertzaintzaren eta beste estatu kide batzuen arteko informazio- eta inteligentzia-trukea (Suediako Ekimena).
4. 078 jarraibidea: Ertzaintzaren Kudeaketa Aurreratuaren Eredua.
5. 080 jarraibidea: Ertzaintzaren gobernantza-egitura eta kudeaketa-foroak.
6. 010 zerbitzu- agindua: Koordinazio operatiboa abisuen aurrean, kategorien arabera, seinalamenduak/errequisitoriak.
7. 001. jarraibide operatiboa: Agindu judizialen kudeaketa.
8. APP eskuliburua.